

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

**Aurrera egiten
laguntzen gaituzuelako
MILA ESKER!**





Eskalataile bat Uharte Arakilen. ARTXIBOA

Sakana LH, eskaladako teknikari berrien harrobi

Sakana Lanbide Heziketako institutuak eskaladako kirol teknikari izateko ikasketak mustu ditu. 2014an mendi ertaineko teknikari zikloa abiatu zuen. Praktika da nagusi ziklo berrian, ikasleek harkaitzetan jardutearen bidetik barnera ditzaten edukiak.

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

SAKANA

Lau modalitatek osatzen dute mendiko kiroletako irakaskuntza: mendi ertaineko zikloak, goi-mendikoak, eskaladakoak eta erreka-zuloenak. Bada, horietatik bi eskaintzen ditu Sakana Lanbide Heziketa institutuak. 2014az geroztik, martxan dauka mendi ertaineko kirol

teknikariko zikloa, eta aurtengo ikasturtean eskaladako teknikari ikasketak mustu ditu. Egun lau ikasle ari dira ziklo berrian, hots, kopuru minimoa –maximoa, aldiz, zortzi ikaslekoa da. Izena emandako hautagai guztiek lortu zuten zikloan sartzea, baina, horretarako, sarrera proba gogorak gainditu behar izan zituzten: besteak beste, hamar

kiloko motxilarekin 1500 metroko desnibela duen ibilbidea osatzea, eta 7a zailtasuneko bide bat bistaz egitea.

Eskaladako ikasketetako lehen bi zikloak –TD1 eta TD2– eskaintzen ditu Sakana LHk. Horiek gaindituta, gradu ertaina lortzen da. Lehen zikloa berdina da mendiko kiroletako ikasketak guztietan; beraz, lehen

urtean batera aritzen dira mendi ertaineko zikloko ikasleak eta eskaladakoak. Espezialitatea bigarren ikasturtean erabakitzen da, behin lehen zikloa gaindituta. Orain arte, espezialitate bakarra zegoen eskuragarri Altsasuko zentroan, mendi ertainekoa, baina ikasturte honetatik aurrera eskaladako ere aukeratu daiteke. Bigarren zikloa lau bloketan dago banatuta: bloke komuna, osagarria, espezifiko eta praktikoa.

Bloke komunean bat egiten dute espezialitate guztiek, gero ñabardura batzuk txertatzen dira bloke osagarrian, eta, ondoren, espezifikoan bakoitzak bere ildoari heltzen dio. Azken fase hori 320 ordukoa da, eta horietatik gehienak mendian ematen dituzte ikasleek, eskalatzen, gidari lana egiten, erreskateetarako trebetasuna lantzen... Aldea nabarmena da: praktikoa 250 ordu dira, eta teorikoak 70. “Gainera, ordu teoriko batzuk ere mendian bertan egiten ditugu. Adibidez, ainguratzeen kasuan, azalpen orokor batzuk ematen ditugu, baina gero harkaitzetan ikusten dugu nola funtzionatzen duten”, azaldu du Jabier Berasaluzek, bloke espezifiko irakasleetako batek.

Bloke komunak eta osagarriak hiru hilabete inguru hartzen dituzte, eta espezifikoak ere hiru hilabetekoa izaten da. Fase hau sei modulutan dago banatuta: gidari lana, garapen profesionala, eskaladako entrenamendua, prestakuntza tekniko eta metodologikoa, ingurumena eta segurtasuna. Horietako bakoitza bizpahiru ikasgaik osatzen dute, eta hiru modutara ebaluatzen da. Alde batetik, ebaluazio jarraitua dago; bestetik, gai guz-

tietan lan bat egin behar da; eta, horretaz gain, kasu batzuetan azterketa dago. Behin bloke hau gaindituta, ikasleek 200 orduko praktikak egin behar dituzte enpresetan. Hortaz, ikasturteak ia urte osoa hartzen du..

Irteerak, eguraldiaren menpe

Fase espezifikoak bi irakasle arduratzen dira: Berasaluze bera, eta Mikel Zabalza alpinista ezaguna. Berasaluzeren arabera, “oso ondo” doa estreinaiko ikasturtea, baina faltan bota omen du denbora gehiago edukitzea. “Dena behar bezala jorratu ahal izateko, interesgarria litzateke bloke espezifikoak apur bat luzeagoa izatea. Modulu asko daude, eta karga handikoak dira. Denbora gehiago behar da gauza guztiak praktikatzeko”. Ikasle kopuruari dagokionez, Berasaluzek uste du soilik lau ikaslerekin aritzea onuragarria dela. “Gidari bakoitza bi pertsonarekin dabil. Horrek kalitatea bermatzen du”. Nolanahi, nahiago omen luke, laurakin baino, zortzirekin aritzea. “Zortzirekin aukera gehiago duzu ikasleekin esperientziak trukatzeko”.

Esperientziak partekatzeak aukera, batik bat, irteeretan izaten dute. Oro har, astebetekoak izaten dira: astelehen goizean aterata ohi dira, eta ostiral gauean itzuli. Alegia, murgiltze ereduak darabilte. “24 orduko irakaskuntza izaten da. Kanpoan gaudenean aprobetxatu egiten

**ZIKLOAN SARTZEKO
SARRERA PROBA
GOGORRAK GAINDITU
BEHAR IZAN ZITUZTEN
HAUTAGAIEK**

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Astelehenetik ostegunera

Metropoli forala

9:00etatik 11:00etara

Esataria: Alfredo

Gaurko gaiak:

- Nahia Urkiarekin bekadun esperientziaz
- Olatzagutiko errefuxiatu astearen balorazioa
- Pause programaren aurkezpena

www.guaixe.eus-en ON LINE

dugu denbora, eta ordu pila bat sartzen dugu. Bide oso luze batean sartzen bazara, bertan 12-14 ordu pasa ditzakezu. Eta horri hurbilketa eta itzulera gehitu behar zaizkio". Gauzak hala, irteera horietan ikasleek abagune paregabea izaten dute ikasgelan ikusitakoa praktikan jarri, eta kirol teknikari baten jarduna bertatik bertara eza-gutzeko.

Alabaina, irteera horiek eguraldiaren menpe egoten dira. Hemen giro hezea izaten da maiz, eta hori eragozpena da eskaladarako. Horrela, bada, irteera bakoitzerako hainbat



alternatiba izaten dituzte, eguraldiaren kariatara jokoz kanpo ez gelditzeko. "Normalean biz-pahiru aukera izaten ditugu. Batez ere Nafarroan ibiltzen gara: Sakanan bertan, Etxaurin... Eta, gero, Gipuzkoa, Araba eta Errioxara ere joan ohi gara. Baita Piriniotara ere. Datoren urtean Europako mendietara ere joango gara agian".

Orekaren peskizan

Berasaluzeren hitzetan, ikasleek motibazio handia dute, "pasioz" bizi dutelako eskalada. "Halako graduatara aurretik esperientzia duen jendea etortzen da. Sarre-ra probak gaintzeko eskarmentua behar da nahitaez". Kirolari gisa maila oso handia ei dute ikasleek, eta hori ederra dela deritzo Berasaluzek. Haatik, arlo batzuetan hutsuneak dituztela deritzo. "Desoreka apur bat dago ikasleen kirol mailaren eta beste arlo batzuen artean. Adibidez, bezeroekin duten trebetasunean hobetu beharra dute. Gakoa dena orekatzea da. Gidari ona izatea asko kostatzen da".

Aurki udako praktikak hasiko dituzte, eta behin horiek gaintuta, TD2ko titulua jasoko dute. Behin hori lortuta, aukera izango dute lan mundura jotzeko, edo TD3a ikasteko. Honek aukera ematen du errendimendu handiko jendearekin

aritzeko –Joku Olinpikoetara doazen kirolariek, kasurako-. Une honetan, TD3a duten sei pertsona besterik ez daude Espainiako estatuan. Eta, epe motzean, kopurua ez da asko igo. Izan ere, azken promozioa duela urte batzuk egin zen, eta egun estatu osoan ez dago aukerarik titulua lortzeko. Berasaluzek prest dago urratsak emateko. "Ea hemendik bi urtera-edo animatzen garen, TD2a duen jendea batuta".

Legeak intrusismoari mesede

Eskaladako kirol teknikari izateko ikasketek hainbat irteera eskaintzen dituzte lan munduari begira. TD2 titulua lortzen duten pertsona gehienak kirol irakaskuntzan, gidari lanean, entrenatzaile lanean edota rokodromoetan aritzen dira besteak beste. Nolanahi, gaur egun, Nafarroan ez dago legerik lan horietan jarduteko titulua derrigorrezkotzat jotzen duenik. Beste erkidego batzuetan, aldiz, ari dira urratsak ematen; hala nola, Euskal Autonomia Erkidegoan.

Bertan onartu den lege proiektu baten arabera, 2020rako titulazioa beharko du kirol teknikari gisa aritu nahi duen pertsona orok. Altsasu Lanbide Heziketa institutuan eskalada irakasle den Javier Berasaluzeren ustez, titulazioa eskatzea da kalitatea bermatzeko modu bakarra. "Titulua kalitatearen bermea da. Titulua duen pertsona bat kontratatzen duzunean, badakizu prestakuntza berezia izango duela lan horretarako. Intrusismo profesional izugarria dago, ordea. Instalazio publiko eta pribatuetan jende asko ari da lanean titulurik gabe".

Pause, IKTen erabilera egokia sustatzeko

Haren bidez Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) inguruko prebentzioa, abusua eta erabilera egokiaren sustapena egingen da. 12 ikastetxeetako komunitateei zuzenduko zaizkie Antox elkarte eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak

Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako prebentzio programetako teknikariek Informazio eta Komunikazio Teknologien (IKT) gaia lantzeko beharra sentitu dute. Etxarri Aranatz aldeko teknikari Lucia Gonzalez de Pedroso teknikariak azaldu duenez, guraso, ikastetxe eta begiraleen aldetik jaso dute kezka. "Gure aukeren barruan, erantzuten joan gara. Hala, joan den urtean Pause programarekin zenbait jardura egin genituen".

Beharrak segitzen du eta programa sustatzen duen Antoxekin (Drogamenpeketasunaren Ikerketarako, Prebentziorako eta Errehabilitaziorako Nafarroako elkarte) batera hura zabaltzea erabaki dute. Elkarteko presidentea Federico Iriartek azaldu duenez, "IKTak gure egunerokoan ezinbesteko bitarteko bihurtu dira, informaziorako, komunikaziorako, aisialdirako eta lanerako. Hori horrela, elkarteak bere profesionalak IKTetan trebatzea sustatu du, gizartean sortzen ari den premia bati erantzuteko. Horren fruitua da Pause programa". Besteak beste, jardun digitalari mugak eta irizpideak jartzea, on-line joko patologikoa eragozteko eta IKTen erabilerak sortzen dituzten kontrol eta menderatze erlazio ereduak saihestea du helburu programak.

Komunitate-prebentzioa

Blanca Martinez Pause programako psikologo teknikoa da. Berak, elkarteko gizarte langilearekin batera, IKTen inguruan irizpideak jarri beharra zegoela jabetu ziren. "Eskaera dago eta beharrezkoa jotzen dugu". IKTek gizarte guztiarengan "inpaktua" dutela nabarmendu zuen: "helduak gaintuak bagaude, haurrak eta nerabeak kalteberagoak dira. Gizarte aldakorrean gelditu, hausnartu eta ikasteko" tartea izan nahi dute elkartekoek Pause programarekin.



Erakundeetako ordezkariak talde-argazkia atera zuten. GUAIXE.

Ikastetxeko komunitate guztiari zuzendutako programa dela nabarmendu du Martinezek. "haur, guraso eta irakasleek irizpide berak izanik prebentzioa indartzea lortuko dugu".

Dozena bat ikastetxe

Irurtzungo Atakondoa ikastetxe publikoa, Uharte Arakilgo San Migel ikastetxe publikoa, Lakuntzako Luis Fuentes ikastetxe publikoa, Etxarri Aranatzko San Donato ikastetxe publikoa eta Andra Mari ikastola, Iturmendiko Arrano Beltza ikastetxe publikoa, Urdiaingo ikastetxe publikoa, Altsasuko Zelandi ikastetxe publikoa, Iñigo Aritzta ikastola, Sagrado Corazon ikastetxea eta Altsasu institutua eta Olatzagutiko Domingo Bados ikastetxe publikoa.

IKTen erabilera ziurra, osasungarria eta arduratsua sustatzeko elkarteko kideak ikastetxetara joaten dira. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko 1., 2. eta 3. mailetako ikasleekin bi orduko bi saio egiten dituzte eta haien artean aste bateko aldea egonen da. Irakasleekin ordu eta erdiko trebakuntza saioa egiten dute eta, beste horrenbeste gurasoekin. Programak 3.379 onuradun izanen ditu. Haietatik 1.168 ikasleak dira, 2.036 gurasoak eta gainontzeko 175ak irakasleak.

Gonzalez de Pedrosok horixe nabarmendu du hain zuzen ere: "oso positiboa iruditzen zaigu aldi berean hiru aldeekin lan egitea". Haiak izan dira ikastetxeetako ateetan jo dutenak eta jaso duten erantzuna "positiboa" izan dela nabarmendu du.

Bai Iriartek eta teknikariek La Caixaen Gizarte Ekintzak egindako 17.000 euroko ekarpena eskertu dute. Horri esker ezarriko da programa. CaixaBank-eko Sakanako Negozio Arloko zuzendari Gerardo Etxabarrenek azaldu duenez, Nafarroan gizarte ekintzara aurten 13,5 milioi bideratuko dituzte.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Oinatzen txapela

Handia egin zuen leitzarrak, alajaina, maiatzaren 28an Bizkaia pilotalekuan buruz buruko finala irabazita. Bada, Bengoetxeak bazituen alde aurreko oztopo galantak titulu hau bereganatzeko, eta oztoporik nagusiena Iker Irribarria zen.

Goierriko txapeldunaren sasoia gutxitan ikusten eta gozatzen den horietakoa da, haren lasterrak eta pilota astintzeko ahala ere apartak,

dohaiak lehiatzeko soberan. Apostuen abiatzeak ere zalantza gutxisko uzten zuen: 100-40 gorriaren (Irribarriaren) alde.

Zaila zuen zaila zuenez Oinatzen, baina finaleko lantegia zorrotz eta zehatz aztertutik ekarri zuen etxetik. Irribarria endredatzea eta aztoratzea xede, bere baliabide guztiak erakutsi eta lotsarik batere gabe probestu zituen.

Sake bakoitza ustegabeko bat zen Irribarriarentzat, orain arrasean zabalera, orain loratua kantxaren erdira, orain bihurritua ezker hormara. Ederki asmatu zuen defentsa lanetan, goierriarraren zartakoak ez baitziren, ez makalak izan eta. Tantoa amaitzen ere fin-fin eta zital jardun zen urdina eta erreperitorio luze-zabal bat garatu zuen aukera izan zuen guztietan.

22kora iritsita sinetsi ezinda zegoen leitzarra, baina bai. Bederatzi urte ondoren banakakoaren nagusi berriz. Askok diote Aimar eta Irujoren itzalek ez diotela palmares potoloagoa osatzen utzi.

Bengoetxeak, baina, ez du etsi, eta aurten Olaizola, Urruti eta Irribarria, hots, hiru txapeldun garaitu ditu eta txapela burugainera berriz ekarri.

GUTUNA

MIKEL MUNDIÑANO LARRAZA
ETXARRI ARANAZKO SARE
HERRITARRAREN IZENEAN

San Kiriko eta San Adriñetan debei... Etxien neittugu!

Etxarri Aranazko Sare Herriarraren ekimenez, "Kiriko eta Adriana" pertsonaiek, San Kiriko eta San Adriango erromeriak baliatuko dituzte dispertsioaren aurkako aldarria herritarren artean zabaltzeko. Duela 7 urte Joseba Andoni Beltza herritarrak eta Juan Luis Napal diseinatzaileak asmatutako "Kiriko eta Adriana" pertsonaiek hasarre daude, "gingirriñetan daude", Estatu espaniar zein frantsesek darabilten dispertsio politika krudelarekin. Astebururo Etxarriko hainbat senide edo lagunek egin behar dituzten 7.000 km krudel horiek "gingirriñetan" daude... sufrimendurekin, kostu humanoarekin, zein ekonomikoarekin "gingirriñetan", istripuekin "gingirriñetan", larriki gaixorik daudenen guztien egoerarekin "gingirriñetan", edo eta salbuespeneko legedi mendekati horrekin "gingirriñetan"! Horregatik "Kiriko eta Adrianarekin" batera, San Kiriko eta San Adrian erromerietan "Etxien nei ttugu!" ozen aldarrikatzera gonbidatzen zaitugu. "Etxien nei ttugu!". Guztion artean lortuko dugu! (laburtuta)

BARRUTIK KANPORA

ETXERAT

Ibon Iparragirrenen egoerari buruz

Ibon Iparragirrenen egoera larriak berriz ere errealtate krudelaren alarma guztiak piztu ditu, larri gaixo diren euskal preso politikoen errealtatea hain zuzen ere. Gaur egun 12 euskal preso politikoren errealtate gordina eta sostengaezina dena.

Ez larri eri diren euskal presoak, ezta euren senide eta lagunak eta, are gutxiago, euskal gizarteak ezin du itxaroten jarraitu. Etxerat elkartetik dei egiten diegu eragile eta instituzio orori premiazko gai honen inguruan bakoitzak dituen erantzukizunak bete ditzan. Ibon Iparragirre, beste larri eri diren euskal presoena gisa, kalean beharko luke bere

gaixotasuna duintasun osoz tratatua izateko.

Etxerateko ordezkari bat Danimarka eta Suediara egindako bidaiatik itzuli berri da. Belgika, Suitza eta Alemaniako herrialdeetan bezala, bertako eragile politikoa eta sozialek harridura eta haserrea erakutsi digute egun espainiar eta frantses estatuek salbuespeneko kartzela politika mantentzeagatik; horren barruan, beste hainbat eskubide urraketaz gain, euskal preso politikoen urruntze sistematikoa aurkitzen da.

Era berean, Torturaren Aurkako Mundu Erakundeak (OMCT) Ibon Iparragirrenen

egoera larriaz kezkatu da berriki, espetxean jasotzen duen tratamendua ez baita bere gaixotasunarekin bateragarria. Erakunde honek Ibonen askatasuna aldarrikatzen du bere bizitza eta osotasun fisiko eta psikikoa bermatze arren, horrela hartzen baitu Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 2. eta 3. artikuluek.

Ezin dugu Ibon eta euren senideen sufrimendua mantentzen jarraitzeari utzi. Euskal Herrian ireki den aro politikoa berri honetan aitzakiarik ez dago larri gaixo diren euskal presoak espetxean mantentzeko, beraien senide eta

lagunengandik urrun. Espainiar Gobernuak, borondate osoz, eri diren presoena eta hauen senideengan sufrimendua eragin nahi baitu.

Hortaz, Euskal Herrian itxaropenez irekitako aro berri honetan, non euskal gizarteak bake prozesua eta gatazkaren konponbidearen gidaritza eramango duen amaiera arte, berriro ere dei egiten diegu instituzio eta eragile politikoa, sindikal eta sozialei larri gaixo diren euskal presoena askatasunaren eta urruntzearen amaieraren alde urrats irmo bat eman dezaten.

Etxean eta bizirik nahi ditugu!

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Diseinu zerbitzua:

GK, Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gixane Andueza Golkoetxea
admin@guaixe.eus

Kolaboratzaileak:

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Zuzentzailea:
Felix Alzela Irriarte

Lege gordailua: NA-633/1995

Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa

kirolak@guaixe.eus

Maketatzailea:

Ruben Imaz Alcaide
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Maria Saez de Albeniz
publizitatea@guaixe.euseta Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.

Foru plaza 23-1.

31800 Altsasu

948 564 275

948 562 107

618 882 675

661 523 245



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Gure Esku Dagoren idatzia sinatu zuten alkate ohiek eta alkateak.

Herri galdeketak alkate izandakoen babesa jaso du

GED: "galdeketa herriaren zerbait da, eta herriaren ordezkariak alde agertzea garrantzitsua da"

OLATZAGUTIA

Egungo alkatearekin batera beste 11k udal arduradun izandakoek sinatu dute Gure Esku Dagoren (GED) idatzia. Domekan aurkeztu zuten, baina denek ezin izan zuten presente egon. Ruben Garcia, gaztelaniaz, eta Mikel Azkargortak, euskaraz, irakurri zuten adierazpena. Hartan, sinatzaileek "sostengu osoa" adierazten diete hilaren 18an "Olatzagutia eta Nafarroako hainbeste herrietan egin asmo diren herri galdeketa guztiei".

Horrekin batera 12 alkateek esaten dutenez, "aukera ezin hobea izanen da herritarren nahia adierazteko, erabakitzen hasteko. Elkarrekin etorkizuna eraikitzen lagunduko dutelakoan gaude. Beraz, animatu nahi ditugu Olatzagutiko eta Nafarroako herritarrok ariketa demokratiko hauetan parte har dezaten, gogoz eta ilusioz".

Gaineratu dutenez, "galdeketa antolaketa alde batera utzita, nafarron erabaki nahia agerikoa eta sendoa da. Nafarroa hobea, askea eta berdintasuneko lortzeko baliabide guztiak gure esku izan nahi ditugu. Nafarroko burujabe izan nahi dugu eremu guztietan erabaki ahal izateko, gure hautuak eta erronkak aurrera eramateko". Euren iritziz, "denoi dagokigu etorkizuna erabakitzea. Denon kontua da, eta denon artean eginen dugu. Gure Esku Dago".

Sinatzaileak

Mikel Azkargorta (egungo alkatea), Lourdes Caro, Ruben Garcia, Iñaki Mentxaka, Blanca Arza, Luis Alberto Besga, Jose Manuel Armendariz (ekitaldian izan zirenak), Gurutze Rodriguez, Juan Zufiaurre, Epi Marin, Marcelino Galparsoro eta Jose Miguel Etxandia.

Herri galdeketetan botoa aurretik emateko aukera dago

Irañeta eta Arruazu batuta, guztira bederatzi herrietan eginen da galdeketa hilaren 18an

SAKANA

Gure Esku Dagok antolatuta estatus politikoari buruzko herri galdeketak eginen dira hilaren 18an. Egun horretan hainbat arrazoiengatik herriaren egonean ez direnak baina herri galdeketa parte hartu nahi luketenekin gogoratu da Gure Esku Dago. Horregatik, atzo hasi eta heldu den astean segi, hautestontziak kalera aterako ditu taldeak zortzi herrietan, Irañetan ez baita horretarako aukerarik izanen.

Bestetik, hasiera batean herri galdeketa Sakanako zazpi he-



Herriak elkarlanean ari dira prestatzen.

rrietan egitekoa bazen ere, kopurua bederatzira igo da. Izan ere, Irañeta eta Arruazu batu zaizkie. Beraz, galdeketa egina duten Etxarri Aranatz eta Baikaurekin batera, ibarreko 15 udalerrietatik 11 herrietan eginen da kontsulta.

Bi herri gehiago

Irañetan eta Arruazun Gure Esku Dagoko talde bana sortu dira eta, hala, garagarzaroaren 18ko Nafarroako galdeketa olatuarekin bat egin dute. Egun horretan irintarrek honako galderari erantzuteko aukera izanen dute: nahi al duzu Nafarroako herritarrok burujabeak izatea etorkizun politikoa erabakitze-ko? Arruazun, berriz hau izanen da galdera: arruazuar gisa, euskal herri burujabe bateko herritara izan nahi duzu?

Egutegia

Irurtzun

- **Larunbata**, 12:00etatik 14:00etara, plazan.
- **Igandea**, 12:00etatik 14:00etara, plazan.

Arruazu

- **Igandea**, 12:30etik 14:30era, plazan.

Lakuntza

- **Igandea**, 18:30etik 20:30era, plazan.
- **Asteartea**, 11:30etik 13:30era, plazan.

Arbizu

- **Ostirala**, 18:00etatik 20:00etara, plazan.

- **Igandea**, 12:00etatik 14:00etara, parkeko autobus geltokian.
- **Asteartea**, 18:00etatik 20:00etara, plazan.
- **Larunbata**, 12:00etatik 14:00etara, plazan.

Urdiain

- **Ostirala**, 18:30etik 20:00etara, Kaluxa kalean.
- **Asteartea**, 11:00etatik 12:00etara, plazan.

Altsasu

- **Domeka**, 12:30etik 14:00etara, Foru plazan.
- **Asteazkena**, 11:00etatik 13:00etara, azokan.
- **Ostirala**, 19:30etik 21:30era Zumalakarregi plazan.

Olatzagutia

- **Domeka**, 12:00etatik 14:00etara, Sarasate plazan.
- **Asteartea**, 11:00etatik 12:30era, San Migel plazan.
- **Osteguna**, 18:00etatik 20:00etara Sarasate plazan.

Ziordia

- **Domeka**, 18:00etatik 20:00etara, Sarasate plazan.
- **Ostirala**, 19:00etatik 21:00etara, Sarasate plazan.



EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea



Etxe pasiboetarako egokia



Isolamendu nukleo indartsua



Beirak lehorrean jarrita



Aparteko azala koloreztatua



Irurtzundarrak Erga mendira birritan joanen dira

Erga mendian dagoen Trinitate ermitara bisitan joanen dira asteburuan irurtzundarrak. Bazuendako kirola izanen da aitzakia, besteendako debozioa. Trinitateko festak direla eta, astebururako egitaraua prestatu du Irurtzungo Kultura Kontseiluak. Ohi bezala kirolak presentzia handia izanen du: pilota, lasterketa, kin-ball...

Igandean Erga mendia gaineko ermitan irurtzundarrekin batera, arakildarrak, imoztarrak eta guliarrak elkartuko dira. Elizkizuna eta gero auzatea izanen da denendako eta lagun giroan pasako dute eguerdia. Garai bateko eta oraingo kontuak izango dituzte hizpide ziur.

Trinitate festetako egitaraua

Ostirala 9

- **23:00** Kontzertuak
Larrazpin: Acera, Sofokaos eta Vertigo.
- **24:00** Donostia - Bartzelona BTT probaren pasa.

Larunbata 10

- **9:00-20:00** Kin-Ball txapelketa, kiroldegian.
- **10:00** Ergara erlojupeko igoera, plazatik.
- **11:30** Haurren pilota partidak, plazan.
- **12:30** Kirolak euskaraz, plazan.
- **14:30** Herri-bazkaria, karpan.
- **17:30** Kalejira, karpatik.
- **18:00** Pilota txapelketako finalak.
- **18:00-21:00** Dantzaldia Pixtatxo dj-rekin.
- **22:00** Larrazpitek.

Igandea 11

- **11:00** Erromeria.
- **17:00-20:00** Joalak eta puzgarriak, plazan.

Erraldoi konpartsa osatzeko kideak behar dira

Larunbatean aurkeztu zituzten Etxarri Aranazko lau erraldoi berriak, festetan mustu nahi direnak

ETXARRI ARANATZ

Estalopetik etxarriarrei begira. Hala egon ziren larunbat eguerdian lau erraldoi berriak. Haiek ikustera makina bat etxarriar hurbildu ziren, heldu eta haur. Azken horiek gutxi behar izan

zuten gogoko zuten erraldoia zein zen: niri Kixkimau gustatzen zait; ba niri, Txiñerratso...

Erraldoiak festetan mustu nahi dira eta horretarako konpartsa osatu beharra dago. Dagoeneko bosten bat animatu dira baina

jende gehiago behar dira egiteko horretarako.

Hain zuzen ere, dei hori egin zuen erraldoiak egiten aritu den Txaro Garziandia, Paola eta Florencia Ferrariekin lanean aritu dena. Lan prozesuari eta jantziei buruzko argibideak eman zituzten bai Txarok bai Paolak. Erraldoien aurkezpenean Jose Luis Erdoziak bakoitzaren izenaren eta historiaren inguruko azalpenak eman eta berezitasunak aipatu zituen, erraldoiak testuinguruan jartzeko.



Erraldoien aurkezpena. UTZITAKOIA



Erraldoia.

Beltza Txuri, XIII. mendeko emakumea

1257an herririk ez bazegoen ere, dorretxea eta eliza zeuden. Irantzuko monasterioari zerga ordaindu behar zieten eta han aipatzen da Beltza-Txuri, Beraxkoren emaztea. Testigantza dagoen aurreneko bi etxarriarrek dira.

Bere izena antonimoekin eratu, itxuraz aparte beste zerbaiti erreparatuko zioten hura jartzerakoan.

Jantzi tradizional dotorea darama soinean erraldoiak, abesbatzak daraman bera. Jaka granatea eta gona bikoitza, burutik behera kapa moduan erabiltzeko. Belarritako dotoreak eta lepoan brotze eta kameu klasikoa. Aurpegi fina du. Azaleko zuritasuna eta ileko belztasunaren kontraste nabaria da.



Erraldoia.

Beraxko, XIII. mendeko gizona

Beltza-Txuriren senarra, izen eratorria da, beratz edo biatz eta -xko atzikiz txikigarria. Biazkillo esanetan litzateke egungo etxarrieran. Kasu honetan ere, ez zen seguruenik soilik itxura aldetik ezarritako izena izanen. Abizen moduan, gaur egun, Belasko/Velasco bezala ageri da.

Sasoiko gizon gisa irudikatu dute erraldoia, aurpegi finekoa eta planta ederrekoa. Jantzi tradizional dotorea darama, abesbatzeko gizonen moduan. Beraxkok lihozko atorra du, txaleko granatea, eta artilezko txapela. Eskuan, zergak ordaintzera joateko antzinako pergaminioa dauka. 1257an Irantzuko monasterioari ordaindu beharreko zerga gogoan.



Erraldoia.

Kixkimau, ihoteetako pertsonaia

Kixkimau (Pintto) gorputz osoa, burua eta guzti, estaltzen zion zaku oihalez egindakoa zen moztorra, eta oihal horren barnea, gorputzaren itxura ere ez nabaritzeko, belarrez puztuta zeukan. Aurpegia, berriz, arnasa eta elikadura ez oztopatzeke, libre zihonan, baina errautsez edo ikatzez belzturik. Hortik, seguru asko, izenondo moduan erabili izana, erabat haserre, erreta, dagoenari egokitzeko.

Halaxe irudikatu dute erraldoia ere. Baina beste osagai batekin lagundurik agertzen da, duela urte gutxi arte kintoek erabiltzen zuten "Ttuntturro" -a buru gainean duela. Azken hori kolore askotako papertxo tirak dituen kono luzea da.



Erraldoia.

Txiñerratso, imajinarioko sorgina

Etxarriko imajinario kolektiboko sorgina. Izua eragin lezake, baina Beheko Basoko atso jakintsua dugu, naturarekin bat egina dagoen izpiritu onuragarria. Sorgina, arima edo izpiritua ere adierazten omen zuen eta badirudi, erabili zutenen artean, azken boladan, haurrak behin ilunduta etxetik kanpo ez egoteko erabiltzen zutela. Kanean gaez egoten ziren haurrek, nonbait, arriskua zuten Txiñerratso agertu eta berarekin eramateko.

Antzinako soinekoaren gainetik oihal harro, arin eta gardenak ditu, pertsonaiaren sorginkeria eta arima irudikatzen. Buruan zare bat darama, Beheko Basoko uzta preziatuaz bete: onttoak, ixtorra, sendabelarrak...



Gazteek harreresiaz bestaldekoiei animoak eman zizkieten. UTZITAKOIA

Bi autobuskada elkartasun Soto del Realgo espetxera

Hiru gazte erakundek antolatu zuten martxa. Aste honetan jakin da presoetako bat bakartu egin dutela

ALTSASU

Hori eraman zieten Adur, Jokin eta Oihani larunbatean. Altsasuko Gazte Asanbladak, Ernaik eta Ikasle Abertzaleak antolatutako Soto del Realgo espetxerako martxan hiru altsasuarrek “urte erdiko pasako bidegabeko espetxealdia” egin dutela eta “gure sentimenduekin jolasten” ari direla azaldu zuten. Presoei eta gainerako auzipetu guztiei elkartasuna adierazi zieten.

Polizia, hedabide, lege eta politika muntaia salatu zuten espetxe atarian gazteek, “sistemaren sostengatzaileek beldurraz eta kolpeez geldituko gaituztela uste dute, baina oker daude” aldarrikatuz. Osteguneko ebazpenaren ondoren altsasuarrek etxean ez gelditzeagatik “pozik” azaldu ziren, “hala ere, borrokan jarraitu behar dugu. Hau guztia gure ondokoei eta gutako edozeini berriz gure

ta ez datzaion bermatzea da gure ardura”.

Madrilgo espetxera joandako gazteak “errepresioaren jo puntuan” daudela azaldu zuten eta, adibidetarako 3 eta 5 urteko espetxe eskaera duten Tolosako gazteen adibidea jarri zuten. Horregatik, “gazteok inoiz baino gehiago beharrezkoa ikusten dugu errepresioaren aurka lan egitea”. Gainera, “ozen” aldarrikatu zuten “guk aske bizitzeko erabakia hartu dugula eta gu itozteko asmatuko dituzten trikimailuen aurrean erantzun eta borrokan jarraituko dugula herri aske bat lortu arte”.

Bestalde, 11 egunertarako bakartu dute espetxean Adur. Horregatik salaketa egiteko makina bat altsasuarrek herenegun protesta egin zuten. 19nako taldetan herriko zazpi tokitan jarri ziren. Hiru presoek askatasuna eskatu zuten kartelen bidez.

Gorenagatik jendea kalera

Joan den ostegunean jakin zen Espainiako Auzitegi Gorenak Altsasuko auzia Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku utzi zuela. Osteguneko deitua zegoen manifestazioa debekatu egin zuten eta, hala ere, 2.000 bat pertsonak protesta egitea erabaki zuten. Hurrengo eguneko baimendutako manifestazioak 3.000tik gora elkartu zituen.



Gurasoak, alderdi, sindikatu, kultur eta gizarte eragileekin bilduko dira. Gainera, Nafarroan barna informazio bira egingen dute.

"Aldez aurretikoari jarraituz erabaki da"

Altsasuko Gurasoek Espainiako Auzitegi Gorenaren ebazpenak “frogak, zantzuak eta argudio juridikoak” ez dituela kontuan hartu salatu dute. “Gertakariak terrorismo delitutzat hartu dira aldez aurretik hartutako erabaki bati jarraiki”

ALTSASU

Babesik gabe. Kezkaturik. Triste. Beldurtuta. Etsita. Horrela sentitzen dira ferietako liskarregatik auzipetuta dauden gazteen gurasoak. Halaxe jakinarazi dute Espainiako Auzitegi Gorenak auzia Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku utzi eta gero. Babesik gabe, Nafarroako Lurralde Auzitegiak martxoaren 23an emandako 16 orriko epaian “zorrotasun juridikoz gertakariak, frogak eta euskarri juridikoak aztertu eta gertakariak terrorismo ekintza gisa hartzeko zantzurik ez eta argudio juridikorik ez zegoela argudiatzen zuelako”, baina Gorenak 4 orri hutsekin eta “Auzitegi Nazionalaren autoa oinarri bakarra izanda” auzia Madrilen uztea erabaki duela. Abokatuek esan dietenez, osteguneko “azaleko” auto bat da, “auziaren elementuetan sakontzen ez duena”.

Oso kezkaturik. Haien hiru semek 7 hilabete preso egin behar

dituztelako, “urrunduak eta FIES erregimenean”. Altsasuko Gurasoek Iruñeko eta Madrilgo epaitegien jardunbideak aldearatu ziurtatu dute “Espainiako Auzitegi Nazionalen ez dago bermerik gure seme-alabak gutxieneko objektibotasunarekin eta ikuspegi juridiko batetik epaituak izateko”. Eta gogoratu dute Madrilgo auzitegiak “muga handiak” jarri dizkiola defentsari, “auziperatutakoen esku-bideak bermatu gabe eta irizpide juridikoetatik urrun dagoen ildo bat jarraitzen baitu, interes politiko eta mediatikoei jarraiki”. Antzeko kasuengatik beste erkidegoetan ez direla 10 urtetik gorako espetxe eskaerak izaten gaitzigitu dute. “Proporziorik

gabeko eskaera batzuk zorrotasun juridikoa eta prozesu-bermeak erasotzen dituztenak”.

Lau ekimen

Altsasuko Gurasoek jendarteari eta Nafarroako erakundeei babes eta laguntza eskatu diete, “bermerik gabeko egoera hau egonkortu ez dadin, ez eta neurrigabeko zigorretan gauzatu ez dadin, hiritarren eskubideak zaintzen dituen gizarte batentzat ulertezinak eta jasanezinak izango lirakeen zigor neurrigabebetan gauzatu ez dadin”.

Gurasoak Nafarroako Parlamentuan ordezkariak izan daitezkeen elkartuko dira eta haien egoera azaldu eta babes eskatuko diete. Sindikatuengana ere joko dute. Aldi berean, heldu den astean kultura eta gizarte taldeekin Iruñean elkartuko dira. Azkenik, gurasoek jakinarazi dute Nafarroako eskualdeetan barnako informazio bira egingen dutela, solasaldi irekiak antolatuz.

**LEIHOA BEHERAINO
BETE LEIHOA
BEHERAINO BETE
LEIHOA BEHERAINO
BETE LEIHOA**

Larrazpilko zubia konponduko du gobernua

Nafarroako Kontratazioen Atariak Leitzarango Autobian (A-15), 116+100 k.p. dagoen Larrazpil zubia konpontzeko eta indartzeko proiektuaren lizitazio iragarria argitaratu du. Larrazpilko zubi pare Arakilgo mugan daude, Irurtzun eta Latasa artean, eta 1992. urtean eraiki zituzten. Bi zubi independente dira, bana zirkulazioaren noranzko bako-

tzeko, eta Larraun ibaiaren eta NA-1300 errepidearen gainetik doaz.

2008ko ikuskapen berezian konturatu ziren zubia konpondu eta indartzeko beharraz, eta orain atera dute proiektuaren lizitazioa. Haren prezioa 1.366.059,03 eurokoa da, BEZik gabe, eta gutxi gorabeherako balioa, BEZik eta luzapen edo aukera guztiak barne hartuz, 1.502.664,93 eurokoa. Eskaintzak hilaren 12ko 14:30ak baino lehen aurkeztu behar dira.



Mamuxarroek zigorra majo ibili zuten. UTZITAKOIA

Italiatik ihoteekin zerbait egiteko gogoz bueltatu dira

Sei mamuxarro eta bi mutu joan ziren eta Unanuko ihotea nolakoa zen argi utzi zieten italiarrei

UNANU

Tricaricoko (Italia) 6. Maskara Antropologikoen Konbentzietatik "gustura" bueltatu dira Unanuko ihotea irudikatu duen zortzikoteak. Hala jakinarazi digu Joseba Imaz Berastegik, ihoteagunear abiatu eta igande eguerdian bueltatu ziren, "paliza, bidai luzea" izan dela, baina "ongi. Ezin hobeki". Dena pagatuta zuten, bidaia izan ezik. Tricarico ezagutzeko aukera izan zuten.

Larunbatean ihote segizioen desfilean parte hartu zuten. 18:00etatik 20:00etara herriko kaleetan barna desfile koloretsua osatu zuten Italia eta Europako 21 maskara segiziok, ihoteak gehienak. Mamuxarro unanuarrek desfilea hasi bazuten ere, senak aginduta, azkar hasi ziren kalean gora eta behera parean opatzen zituztenak zigorrekin zirikatuz eta kolpatuz. "Unanu-

ko inauteriaren kontzeptua argi gelditu zen".

Ideiei bueltaka

Unanuarrek ihoteen inguruan zerbait antolatzeko gogoz etorri dira. "Zerbait mugitzea" aztertzen ari dira. Ez dakite Unanun izanen den, edo Sakanan, baina Nafarroako Gobernuaren atea jotzeko asmotan dabilta. Bitartean, Tricaricon beste segizioekin harremanak izan dituzte. Sardiniaiko batzuk antzeko egitasmoa dutela eta unanuarrei kontaktua eskatu zieten.

Bigarren urtez segidan parte hartuko dute unanuarrek Tricaricoko konbentzioan. Berandu hots egin zieten eta taldea osatzeko larri ibili ziren eta Sakanako beste ihoteetakoei jakinarazteko aukerarik ez zuten izan. Larunbatekoaz aparte, hitzaldiak izaten dira eta hainbat adituk hitza hartzen dute.



Olatziko eskolako LH-ko 6. mailako ikasleak arduratu dira errefuxiatuen aldeko astea antolatzeaz.

Errefuxiatuen astea, errepikatzeko modukoa

Eskola herrira ateratzea eta herrira eskolara sartzea da Domingo Bados eskola publikoaren Ikas Komunitatea proiektuaren helburua. Eta horren isla izan da antolatu duten errefuxiatuen aldeko astea

OLATZAGUTIA

Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek sustatu zuten astea, Leire Arratibel tutorearekin, Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean, kulturartekotasun zerbitzuarekin, Olatzagutiko Udalarekin eta kultura teknikariarekin batera.

Emma Martinez eskolako zuzendariak ikasleak "oso sentibilizatuta" egon direla azaldu digu, "uste dut hemendik aurrera gauzak beste modu batera ikusteko aukera izanen dutela". Eta gaineratu du: "oso polita izan da. Egia esan hurren erreflexio asko azken egun hauetan oso interesgarriak izan dira". Asteartean Greziako erre-

fuxiatu eremuetan egondako boluntario baten eta errefuxiatu siriar baten lekukotza izan zuten. "Oso ukituta atera ziren. Baina, hurrengo egunean, oso interesgarria izan zen esatearena. Gerraren zergatiak zergatik ziren, errefuxiatuak nola adierazten zuten. Zeren galdera pertsonal asko egon ziren. Abdul oso ukituta ikusi zuten. Ikasleen artean hausnarketa sakona egon zen".

Parte hartze handia

Domekako bigarren eskuko azoka egin ahal izateko olaztiarrek eta jubilatuek emandako laguntza nabarmendu zuten Martinezek. Plazan egitekoa zen azoka

eguraldiagatik frontoira lekualdatu zuten. Salmahaitan bisitariak liburuak, DVDak, arropa, oinetakoak, eletra-tresnak, koadroak, liburuak, ikasleek beraiek egindako bitxiak, eskulanak eta Help-Nafarroa gobernuaz kanpoko erakundearen argibide mahaia zeuden. Martinezek azaldu zigunez, "parte hartzea oso handia izan da, bai erosleena bai saltzaileena. Oso ongi moldatu gara".

Bestalde, Aixeleku, Amaia, Barandi, Clinker eta Ogiberri taberneak eskolako ekimenarekin bat egin zuten. Pintxo berezi bana 2,5 eurotan salgai jarri zuten eta bakoitzetik 0,5 errefuxiatuen alde bideratu zuten.

UDAN MUGAIPE 2017

ETXARRI ARANATZ

ORDUTEGIA
9:30-13:00

Haurren aisialdian pentsatutako jardura.

IGERIKETA IKASTAROAREKIN BATERA APUNTATU DAITEKE!!!

1. ASTEA: EKAINAK 26-30
2. ASTEA: UZTAILAK 3-7
3. ASTEA: UZTAILAK 10-14
4. ASTEA: UZTAILAK 17-21
5. ASTEA: UZTAILAK 24-28

APUNTATU ZAITEZ GAURTIK HASITA!!!!

669 475 853 / WWW.MUGAIPE.COM

Profesionaltasun ziurtagiria LHN lortzeko aukera

Nafar Lansarek Nafarroan 41 ikastaro antolatu ditu Lanbide Heziketako hainbat espezialitateetan profesionaltasun ziurtagiria lortzeko. Horietako bat Altsasun eskainiko da. Hain zuzen ere, tornulariei eta fresatzaileei zuzendutakoa da, eta txirbil abiatze-sistema, prozesua eta programazioa ikasiko dute. Ikastaro presentziala izango da, 540 ordukoa, irailaren 9an hasiko dena, 15:00etatik 20:15era. Langabezian daudenei zuzendutakoa da eta Sakana Lanbide Heziketan eskainiko da, Altsasun.

Horretaz aparte, adinez nagusiek gaztelania eta matematika ziurtagiriak lortzeko ikasketak egin ditzakete. Irailaren 21ean eta 22an hasiko dira, goizez.

Unibertsitate sarbide proben azken eguna

Altsasu institutuko 45 ikasle, D eredu 41 eta A eredu 4, Unibertsitate Sartzeko Ebaluazioa, edo selektibitatea, egiten ari dira. Nafarroan, guztira, 2.926 ikasle dira Nafarroako Unibertsitate Publikoan proba egiten ari direnak (%58 emakumezkoak eta % 42 gizonezkoak). Herenegun hasi eta gaur despedituko da proba.

Hiru egun horietako notak sarbide fase orokorreko 10 puntuetatik 4 balio ditu, gainontzeko 6ak batxilergoko notak ematen dizkie ikasleei. Gainera, fase espezifikoa dago. Horretan, hala nahi dutenek, nota igotzeko azterketak egin ditzateke.

Elikagai Bankuak 267 familia sakandar hornitzen ditu

Nafarroako Elikagai Bankuak jaki bilketa handia egin zuen joan den ostiralean eta larunbatean. Bankuaren deialdiarekin bat eginez makina bat sakandarrak egin zuten eta boluntarioen esku jakiak utzi zituzten. Bankuaren biltegiak jakiz beteko dira eta, horrela, Nafarroako 8.000 bat familiek jasoko dute jatekoa. Banaketan bankuak 199 erakunderen laguntza du.

Sakanan ere badira Nafarroako Elikagai Bankutik jakiak jasoko dituzten familiak, 267 guttira. Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eskualdean 83 daude, ibarreko guztien herena, zehazki %31,08. Etxarri Aranaz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen eskualdean 35 familia dira jaki horien premia dutenak, Sakanako %13,1. Azkenik, Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen eremuan beste 149 familia, ibarrean premia dutenen erdia baino gehiago; %55,8 hain zuzen ere.



Altsasuko udal bilkura. ARTXIBOA

Ollo izanen da Altsasuko Euskara Batzordeko buru

Euskara Batzordeak buru berria du Javier Ollo Martinez alkatea. Batzordeak bi kide euskaldu ditu Virginia Alonso eta Ollo bera. Azkenean alkatea izanen da Haizea Ramirez de Aldaren lekukoa hartuko duena batzordean. EH Bilduko kideak hainbat desadostasunengatik kargua uztea erabaki zuen, horien artean, lanen lantaldeko kideen hizkuntza profilak aldatu zirelako.

Kontu Ganberak udalaren kontuei oniritzia eman die

2015eko udal kontuak aztertu zituen eta egoki kudeatzen dituela ondorioztatu du

OLATZAGUTIA

Nafarroako Kontuen Ganberak Olatzagutiko Udalaren 2015eko kontuak aztertu eta txostena osatu du. Han jaso denez, 2015ean udalak 1,8 milioi gastatu zuen, eta 2,2 milioi bildu. Musika eskolaren (erakunde autonomoa) diru-sarrerak 30.000 eurokoak ziren eta Erburua Olazti, SLrena (sozietatea) 180.000 euro.

Udalak jasotako 2,2 milioitiki milioi bat zuzeneko zergak ziren, milioi erdia ohiko transferentziak eta beste milioi erdia udal tasak, ondare bidezkoa sarrerak eta komunalak. Gastuei dagokienez, langilerian 660.000 euro gastatu ziren, ohiko ondasun eta zerbitzuetan 620.000 euro eta ohiko transferentzietan 280.000 euro. Ganberak dioenez, 2015eko kontuek ongi islatzen dituzte ondare egoera, aurrekontu kitapena eta finantza egoera.



Olatzagutiko udaletxea.

Legezketasunaren azterketa ere udalaren aldekoa da, udal finantza jardura legediaren arabera baita. Dena den, kontratazio guztietan zenbaterokoren arabera prozedura beti zorrotz betetzeko eskatu dio udalari.

Lau lan egiteko gobernuaren diru-laguntzen zain

Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planean sareak eta zoria berritzeko lanak aurkeztu ditu udalak

URDIAIN

Urdiaingo alkate David Orozek gogoratu duenez, Iruñetik etorriko den dirua "ez zaigu iritsiko nahi ditugun gauza guztiak egiteko, ezta gutxiago ere. Egiteko batzuk baditugu Urdiainen

eta laguntzak eskatu ditugu. Etorrtzen diren heinean egiten joanen gara".

Toki Azpiegitura planera lau lan aurkeztu ditu Urdiaingo Udalak: Goienkalden euri urak jaso eta zoria berritzea; Kaluxa

eta Iturtxulo kaleen lotura eta herriaren etxeko aurreko aldean sare guztiak berritzea eta zoru berria jartzea eta gauza bera egingen da De Felipe eta Bentalde kaleetan.

Orozek esan duenez, "Iruñetik dirua etorriko balitz egingen genuke; ez baletor, gobernuak berak emandako Erabilera Askeko Funtseko 47.808 euroak eta baso aprobetxamendutik ateratakoarekin bat egingen genuke. Premia gehien duena Goienkaldekoka dela uste dugu".



Urdiaingo ikuspegia.

ERBURUA OLAZTI S.L.

OLAZTIKO UDAL IGERILEKUETAKO
TABERNA ERRENTAN EMATEKO

Baldintzen plegua: Olaztiko udaletxean dago interesdunen eskura, eta kontratazio-atarian ere bai.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea: Olaztiko udaletxean, 2017ko ekainaren 16ko 14:00ak baino lehen.

Olaztin, 2017ko ekainaren 2an.
Mikel Azkargorta Botal,
Udaleko Erburua Olazti S.L.
enpresa publikoko
Kontselluburua



SORGIÑAK
taberna



LAKUNTZA
948 576 357

BILTOKI
TABERNA • JATEKOA

**Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta**

Asteleheneetik ostiralera
**Eguneko menua
9€**

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

Ogiaren artisauak

PORTUKO okindegia



ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 • Lantegia: 948 467 153

Patroiaren eguna prestatzen ari dira Etxarrin

Etxarriarrek San Kiriko ospatuko dute asteartean. Eguerdian meza izanen da eta hura despedituta, eliza atletik herriko soroak bedeinkatuko dira, uzta ona emateko eskatuz. Arratsaldean etxajua noiz lehertuko zain egonen dira kultur koadrilak, leherketa baita mahaira eseri eta afari-merendua hasteko. Andra Mari ermitaren inguruan elkartutako etxarriarrak jaso eta eraikinaren aurrera pasako dira, Dantzakia dantzatzera. Hura despeditzean, kalejiran plazara jaitsiko dira. 20:00etatik 21:00etara eta 22:30etik 2:00etara, Oharkabe taldearen ardua izanen da kioskotik dantzaldia eskaintzea.

Lore zentroak eta erramuak egiteko ikastaroa Arbizun

Arbizuko Udalak, zentroak eta erramuak egiteko ikastaroa antolatu du hilaren 17rako, larunbata. 10:30ean hasi eta 13:00etan despedituko da ikastaroa. Tailerrean irakaslea Toshi Larraza izanen da.

Udalak antolatutako ikastaroan izena emateak 10 euro balio ditu. Interesa duten pertsonak Arbizuko udaletxeko idazkari-tzan, goizez, edo liburutegian, arratsaldean, eman dezakete izena. Horretarako epea asteazkenean despedituko da. Ikastaroa egiteko gutxienez sei pertsona beharko dira, bestela bertan behera geldituko da. Halakorik gertatuz gero apuntatu direnei dirua itzuliko zaie.

Foruzaingoaren Plan Zuzentzailean parte hartzeko bilera

Nafarroako Gobernuaren Barne Zuzendaritza Nagusiak 2016-2020 Foruzaingoaren Plan Zuzentzailean egiten ari da. Haren bidez Foruzaingoaren zerbitzuak zehaztu eta Nafarroako polizia-eredua optimizatu nahi da. Gardentasun Atariaren bidez hilaren 16ra arte ekarpenak egin daitezke.

6 eskualdeetan hitzaldi bana antolatu du. Haietako bat Altsasun, ostegunean, 11:00etan, Iortia kultur gunean. Publikoari zabalik dauden bilera horietan inguruko agintariak, polizia eta beste gonbidatu batzuk parte hartzen dute. Planaren edukia azaltzen da eta akaberan iritziak trukatu eta ekarpenak egiteko aukera dago.

Langabezia %,5,55 jaitsi da maiatzean Altsasuko eskualdean

Nafar-Lansarek jakinarazi duenez, Altsasuko Enplegu Bulegoan langabezia 52 pertsonetan egin zuen behera maiatzean. Joan den urteko maiatzarekin alderatuta langabe kopuruak %14 egin du behera. Lan bila izena emanda 885 pertsona zeuden. Ibarreko datu orokorra jakiteko Iruñeko Zabalgunean izena emanda dauden arakildarren eta irurtzundarren datua behar da.

Maiatzean, bestalde, Altsasuko enplegu bulegoaren bidez 659 kontratu sinatu zituzten sakandarrek. Haietatik 47 besterik ez ziren mugagabeak. Gobernutik esan dutenez, "langabeziak behera egiteko joera nabarmenago finkatu da".

Sarek presoen etxeratzea aldarrikatuko du

Etxarri Aranazko Sare herritarrek ekimenez, Kiriko eta Adriana pertsoniak heldu den asteko bi festetan egonen dira. Duela 7 urte Joseba Andoni Beltzak eta Juan Luis Napal asmatutako pertsoniak hasarre, "gingirriñetan daude": "estatu espaniar zein frantsesek darabilten dispersio politika krudelarekin; astebururo astebururo etxarriko hainbat senide edo lagunak egin behar dituzten 7.000 km krudel horietan; sufrimenduetan, kostu humano zein ekonomikoekin; istripuekin; larriki gaixorik dauden egoerarekin edota salbuespenezko legedi mendekatiekin". Saretik gaineratu dutenez, "asko gara Etxarrin, Kiriko eta Adriana bezala, "gingirriñetan" gaudenak!"

Sarek bi ekimen antolatu ditu bi erromerietarako. San Kirikon dispersioaren kontrako koadrila-selfiak egingen dira mahaitan. San Adrianen, berriz, dispersioaren kontrako photo-call-a egingen da.

Lantegietatik presoen eta iheslarien etxeratzea eskatzen

Irekiko kideak presoen eta iheslarien etxeratzearan aldeko sinadurak biltzen ari dira lantegietan.

SAKANA

ETAk bere jarduna utzi zuela bost urte bete zirenean, euskal presoen eta iheslarien egoerarekin kezka duten 31 langilek Ireki mugimendua sortu zuten. Diotenez, "gatazka armatua izan duten munduko beste tokietan behin betiko su etena izan ondoren, presoak etxera itzuli dira, eta iheslariak euren etxetara itzuli dira".

Munduan barnako makina bat adibidek "erakusten digute giza arrazoietatik haratago, badela bakea finkatzeko eta biolentzia

ez itzultzeko nahiko arrazoi kartzelak hustutzeko". Preso eta iheslariak etxeratzeko modu desberdinak daudela azaldu dute: "guztiak batera, epeka, legediak aldatuz edo aldatu gabe. Gure ustez bada garaia etxerako bidean jartzeko".

Irekiko kideek "langile munduak historikoki erakutsi duen eragite gaitasunaz baliatu nahi dugu helburu horretan laguntzeko". Lantokiz lantoki sinadura bilketari ekin zioten. Sakana dagoeneko 1.000tik gora jaso dituzte. Sakandarrei sina-



Sakanako hainbat langilek Ireki ekimenarekin bat egin dute.

dura emateko dei egitearekin batera, hilaren 17an, 12:30ean, Gasteizen egingen den manifestazioan parte hartzeko eskatu diete.

Hara joateko autobusak antolatu dira; izena ohiko tokitan

eman daiteke, 5 euro ordaindu beharko dira horretarako. Manifestariak gasteizera zutabeetan iritsiko dira. Sakandarrak 11:00etan Otazu herritik Gasteizera abiatuko den zutabeetan parte hartuko dute

Hatortxu Rock jaialdia prestatzeko auzolan berria

Garilaren 27tik 30era Hatortxu Rock elkartasun musika jaialdia izanen da Lakuntzan. Hura hartuko duen ingurua behar bezala prestatzeko auzolanean ari dira. Txukuntze lan horietan parte hartzera gonbidatu dute antolakuntzatik. Lagundu nahi dutenek bihar, 8:00etan, Lakuntzako plazan egon beharko dute.

C3 CITROËN BERRIA AS UNIQUE AS YOU ARE

ConnectedCAM Citroën™ personalizazioko 36 konbinaketa Citroën Advanced Comfort®





















CITROËNek nahiago TOTAL KONTSUMO MISTOA (L/100KM) / CO2 (G/KM) ISURIA: CITROËN C3: 3, 2-4, 7 / 83-109

citroen.es

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

BG txartela

Sakanan 80 komertzio baino gehiagok deskontuak eta abantailak eskaintzen dituzte eta ondorengo orrialdeetan denda guztien sailkapena aurkituko duzu. Oraindik bazkidea ez bazara, animatu eta eman zure datuak. Bidali mezua admin@guaixe.eus edo deitu 948 564 275 ra.

 <p>beleixeguaixe</p> <p>30€o erosketagatik ebeko produktua opari.</p> <p>ALTSASU - 948 562 405</p>	 <p>ALDASORO HARATEGIA</p> <p>30€o erosketagatik ebeko produktua opari.</p> <p>ALTSASU - 948 562 405</p>	 <p>ALFA INMOBILIARIA</p> <p>Ebe edo pisu baten erosketagatik 100 euroko txekoa opari</p> <p>ALTSASU - 948 562 711</p>	 <p>AMEZTIA FISOTERAPIA</p> <p>bakarkako sesioetan %5eko deskontua.</p> <p>ALTSASU - 848 479 154</p>	 <p>ARKANGOA TABERNA</p> <p>Postrea/kopa doan</p> <p>ALTSASU - 948 562 134</p>
 <p>ASENSIO MODA</p> <p>100 eurotik gorako erosketetan 10 euroko balea.</p> <p>ALTSASU - 948 467 932</p>	 <p>BASOMUTUR</p> <p>menuan eta kartan %6ko deskontua.</p> <p>ALTSASU - 948 562 549</p>	 <p>BILTOKI TABERNA</p> <p>Kafea/kopa doan</p> <p>ALTSASU - 948 467 876</p>	 <p>CITROËN SAN MIGUEL</p> <p>Total olioetan %30eko deskontua. Pneumatikoen aldatketan %30</p> <p>ALTSASU - 948 562 261</p>	 <p>DANTZALEKU TABERNA</p> <p>Txupitua doan.</p> <p>ALTSASU - 667 353 503</p>
 <p>EKIN</p> <p>100 euroko erosketengatik 10euroko deskontu balea</p> <p>ALTSASU - 948 562 756</p>	 <p>EROSKI BIDAIAK</p> <p>% 5eko beherapena (hiri hoteletako eta garraio hutsen erreserbetan ez)</p> <p>ALTSASU - 948 564 335</p>	 <p>FORD GABIRONDO</p> <p>Olio aldatketan %30eko deskontua. Eskulane-tan %15</p> <p>ALTSASU - 948 563 300</p>	 <p>GERTU SAKANA</p> <p>Sukalderako tresnerian 50ko erosketagatik %10eko deskontu balea</p> <p>ALTSASU - 948 564 595</p>	 <p>GIXANE ESTETIZISTA</p> <p>Produktua opari</p> <p>ALTSASU - 948 563 029</p>
 <p>GK-KOMUNIKAZIOA</p> <p>%5eko deskontua bazkideen artean</p> <p>ALTSASU - 948 564 275</p>	 <p>GOIKO LOREDENDA</p> <p>30 eurotik gorako erosketetan landare bat opari.</p> <p>ALTSASU - 948 564 260</p>	 <p>IKER KIROLAK</p> <p>50 eurotik gorako erosketetan, %10eko deskontua.</p> <p>ALTSASU - 948 564 469</p>	 <p>IL PADRINO</p> <p>Txupitua doan</p> <p>ALTSASU - 948 469 022</p>	 <p>IORTIA HORTZ KLINIKA</p> <p>%10eko deskontua aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan.</p> <p>ALTSASU - 948 467 603</p>
 <p>IRUBIDE JATETXEA</p> <p>Gosaria 2,50 eurotan</p> <p>ALTSASU - 948 468 876</p>	 <p>IZARA</p> <p>%5eko deskontu zuzena ebeko jantzi eta osagarrietan.</p> <p>ALTSASU - 948 467 304</p>	 <p>JOSELEN MODA</p> <p>100€urotik gorako erosketetan, 10euroko balea.</p> <p>ALTSASU - 948 562 191</p>	 <p>JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA</p> <p>%5eko deskontua 50 eurotik gorako erosketetan.</p> <p>ALTSASU - 948 562 880</p>	 <p>KIKI ARGAZKI-DENDA</p> <p>8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.</p> <p>ALTSASU - 948 469 023</p>
 <p>LARKA</p> <p>100 euroko erosketengatik 10euroko balea</p> <p>ALTSASU - 948 467 910</p>	 <p>LASTAI GASOLINDEGIA</p> <p>20euroko 10 gasoil hartuadiagatik oparia.</p> <p>ALTSASU - 948 468 823</p>	 <p>LIBURUNDA</p> <p>%5eko deskontua papertegian.</p> <p>ALTSASU - 948 469 201</p>	 <p>LOGURE</p> <p>%15eko deskontua atsedenean.</p> <p>ALTSASU - 659 866 260</p>	 <p>LURESU OPTIKA</p> <p>%20ko deskontua.</p> <p>ALTSASU - 948 564 695</p>
 <p>ML</p> <p>100eurotik gorako erosketetan, 10euroko balea.</p> <p>ALTSASU - 948 562 396</p>	 <p>NAMASTE YOGA</p> <p>Bi klase doan.</p> <p>ALTSASU - 948 564 890</p>	 <p>NORTE ERLOJUDENDA</p> <p>%7ko deskontua produktu berrietan</p> <p>ALTSASU - 948 562 428</p>	 <p>NUEVA IMAGEN ILEPAINDEGIA</p> <p>%10eko deskontua.</p> <p>ALTSASU - 948 467 074</p>	 <p>PINPILINPAUSA</p> <p>50eurotik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.</p> <p>ALTSASU - 948 564 452</p>
 <p>REDIN LURRINDEGI ETA KOSMETIKA</p> <p>%5eko deskontua osagarrietan.</p> <p>ALTSASU - 948 562 452</p>	 <p>SAKANA OPTIKA</p> <p>%15eko deskontua graduatutako betaurrekoetan %10eko deskontua beste artikulutan</p> <p>ALTSASU - 948 563 124</p>	 <p>SORKUNDE HARATEGIA</p> <p>50 euroko erosketetan ebeko produktua doan.</p> <p>ALTSASU - 948 467 224</p>	 <p>TIPI-TAPA OINETAKOAK</p> <p>60€uroko erosketagatik %10eko deskontua</p> <p>ALTSASU - 948 563 357</p>	 <p>TXIKITXO</p> <p>60 euroko erosketagatik %10eko deskontu-bartela</p> <p>ALTSASU - 948 467 308</p>

Zer da zuretzat GUAIXE?

Milesker zuretzatiko bakoitzari astero egiten duzuen lan finarengatik



Nines

"Guaixe neretzako asko da. Euskarazko erreferentziatzko astekaria da, euskara hutsean ezinbestekoa haren erabilera bultzatzeko. Nik ez dakit euskaraz askotan ikasten sailatu naizen arren eta izugarri gustatuko litzaidake hitz egitea. Guaixea ere diru iturri bat da niretzat. Bi seme ditut bata ikasten eta bestea lanean tarteka, gauzak dauden moduan, pizgarria da, bai."



Jaione

"Galdere zaila izan da..."

Niretzako Guaixea, Sakanan gertatzen diren albistez berri izateko modu bakarra dela esan dezaket."

Ziordi



Vilma

"Tokiko hedabide bat interes handikoa bertako biztanleentzako, notiziaren parte izan edo ez bertan isladaturik ikusten baitute bere burua baita ohiturak zein asteroko zereginak."



Sergei

"Aupa Guaixe!"

Altsasu

Urdian

Iturmendi

Bakaiku



Olga



URBASA



Oier

"Sakandarrontzat, oinarritzko zerbitzu eta behar bat."



Eneko eta Adur

"Goretzat Guaixe nolabait Sakandarroi batu egiten gaituen astekari eder bat da. Honetaz gain gustora egiten dugun lantxo bat da."

"Sakandarroi euskaraz biltzen gaituen astekaria."

Lixerre

Etxarri Aranatz



Ane eta...

"Betidanik ezagutu izan dugun astekaria da, disenuan aldaketak izan dituen arren eta momentu txarrak pasa dituen arren, beti aurrera atera da eta gure baitarari kolorea ematen dion astekaria da. Izan ere, Guaixeak kolorea ematen dio zentzu guztietan, informazio iturri aparta da baitalarako ekintza eta albistez ohartzeko!"

Lizarraga



Juanjo

"Sakanako Astekaria."

SAKANA



Josu

"Zonalde honetako astekari garrantzitsu bat da jendea Sakanan gertatutakoen berri jasotzen duelako. Horrez gain, errotatiban nik jasotzen ditudanez, Noticia-sekoekin han egiten delako, baita ibarreko banatzaileekin harreman onak mantentzeko balio dit Guaixeak hauen etxean uzten ditudalako. Diru sarrera ere ongi datorkit, eta espero dut luzaroan honetan jarraitzea, kar kar"

Lakuntza Uharte Arakil

Arruazu

Irañeta

Ihabar

Hiriberri

Egiarreta

Etxeberri

Irurtzun

Etxarren

Zuhatzu

Unanu

Dorrao

Satrustegi

Koro
"Sakana txiki bizitzeko euskarri bat."

Euker
"Guaixe niretzat aukera bat eman zidan astekaria da. Guaixek orain dela 2 urte gutxi gora behera aukera bat eman zidan nire herrian Guaixek banatzeko eta emandako aukera hori berehala onartu nuen. Ni Guaixeren zati bat sentitzen naiz, badakit oso zati txikia naizela bakarrik astekariak banatzen ditudalako baina oso pozik nago Guaixen parte hartzen dudalako eta eskerrak eman behar dizkiot Guaixeri eman zidan aukerarengatik."

Josefina
"Zonaldean berriak zabal-tzen dituen astekari bat. Lehen askoz gehiago gustatzen zitzaidan aldizkari formatua zuenean. Nere alaba kolaboratzailea zen eta artikulu politak idazten zituen. Garai hartatik dugu Guaixerekin lotura. Herrian bazkideek esaten didate euskaraz ez jakin arren, sustatzeko eta Guaixek jarrai dezan laguntzen dutela. Ostiralero goizeko 9:00-tarako Guaixea bazkideen etxe guztietan dago. Gustora egiten dut banaketa eta beste ezer behar izatekotan, egiteko prest nago."

Marta, Alba eta Leire
"Guretzat Guaixe herri guztiak elkarturik sentitzeko modu bat da."

Xabier
"Bertako jendea eta berriak agertzen den astekari euskalduna."

Unanu
"Sakanako errealitate euskaraz ezagutzeko lehioa"

Irañeta
"Sakanan dagoen bateratasun erreferente garrantzitsu bat da. Identitate. Komunikabidea eta produktu bakarra Irurtzundik Zlordira batzen gaituena."














































Paula Dani eta Neko
"Guaixea egunkari oso entretenigarria dela esango genuke, non Sakanan gertatzen diren gauzarik garrantzitsuenetaz konturatzten garen. Kirolei buruzko berriei egiten diet batez ere arreta, ezagun asko agertzen baitira askotan."


Lidia eta Aintzane
"Astero sakanako inguruko informazio baltotsua aurkitzeko era bat da. Berriez gain, sakanako aktibitate interesgarriak azaltzen dira."

Lidia eta Aintzane
"Guaixea, Sakanako berriak helarazten dituen astekaria izateaz aparte, bertako herriak eta herritarrak gerturatzten dituen komunikabidea dugu. Baina hare garrantzitsuagoa, aspalditik zonaldean euskara sustatzeko lanean dihardun talde sendoa ere bada. Eta hortaz, guztion artean baloratu eta babestu beharko genukeen sakanar guztion berezko zerbait."

Jokin
"Sakana bezalako bailara batendako ezinbestekoa den euskarako komunikabide gisa ikusten dut Guaixea, euskararen normalizazio prozesuan bete-tzen duen paper erabakigarriaz gain, Sakanako herritarren arteko batasun bat ere bultzatzen duelako. Azken honen erakusgarri, urteak betetzen dituztenen argazkiak, agendaren atala eta herriko jaiak edota bestelako ospakizun festazaleen egitarauak genituzke, sakanarrok amankomunean izan ditzakegun interesekin loturiko albiste eta gainontzeko sailekin batera."

Idora
"Zuhatzun Guaixea banatzen dudanean, etxe askotara inguruko berriak gure hizkuntzan iritsiarazteaz harro sentitzen naiz."

 <p>XAGU INFORMATIKA</p> <p>%5eko deskontua 30€urotik gorako erosketa eginez gero.</p> <p>ALTSASU - 948 567 331</p>	 <p>ZELANDI KIROLDEGIA</p> <p>Matrikula doan.</p> <p>ALTSASU - 948 562 786</p>	 <p>BERGARA CENTRO OPTICO</p> <p>Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan %10eko deskontua.</p> <p>AGURAIN - 945 302 978</p>	 <p>TEXARTU</p> <p>Opariak / deskontuak</p> <p>IRUÑEA - 948 226 495</p>	 <p>BERRIA EGUNKARIA</p> <p>%50 deskontua harpidetzan</p> <p>ANDOAIN - 943 304 030</p>
 <p>JUGA TAILLERRAK</p> <p>Oloia aldatzean, %10eko deskontua filtroetan.</p> <p>ARBIZU - 948 462 171</p>	 <p>Mª JOSE ILEAPAINDEGIA</p> <p>Ile tratamenduak 5 euro</p> <p>ARBIZU - 948 460 912</p>	 <p>OLATZEA LANDA HOTELA</p> <p>Kafea / txupittoa doan.</p> <p>ARBIZU - 948 461 876</p>	 <p>ARRUAZUKO OSTATUA</p> <p>Kafea/kopa doan</p> <p>ARRUAZU - 948 576 032</p>	 <p>ARGIRO OPTIKA</p> <p>Betaurreko graduatuak egitean, eguzki betaurrekoak graduatzea doan.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 948 461 252</p>
 <p>BAIZA MOTOR</p> <p>Sthil eta Viking produktuetan, 500 euroko gastuarekin %15eko deskontua.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 948 461 734</p>	 <p>ENERITZ ILEAPAINDEGIA</p> <p>%10eko deskontua Schwarzkopf produktuetan.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 686 257 744</p>	 <p>ETXARRI HORTZ KLINIKA</p> <p>%10 deskontua garbiketetan.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 948 460 315</p>	 <p>ETXARRI KOMERTZIALA</p> <p>%10 menpekotasun altzarietan.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 948 460 021</p>	 <p>HOSTO GORRI ALTZARIAK</p> <p>Dendako produktuetan %5eko deskontua.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 948 460 359</p>
 <p>ILAIA ILEAPAINDEGIA</p> <p>Deskontu bereziak.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 948 567 071</p>	 <p>IÑAKI BIZARTEGI ILEAPAINDEGIA</p> <p>%10eko deskontua produktuetan.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 684 315 869</p>	 <p>KAXETA LIBURUDENDA</p> <p>%5eko deskontua irakurketako liburuetan.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 948 460 477</p>	 <p>LIZARDI ESTETIKA ZENTROA</p> <p>%5eko deskontua tratamendu guztietan.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 649 444 018</p>	 <p>URGAIN ALBAITARITZA</p> <p>%20eko deskontua kontsultan.</p> <p>ETXARRI ARANATZ - 948 567 029</p>
 <p>BEA ESTETIKA ZENTROA</p> <p>%10eko deskontua Gandiva produktuetan.</p> <p>IRURTZUN - 948 500 995</p>	 <p>FRUITIS JANARIDENDA</p> <p>%10eko deskontua fruta tropikaletan.</p> <p>IRURTZUN - 948 600 426</p>	 <p>JOSE ITURRALDE TAXIA</p> <p>%10eko deskontua.</p> <p>IRURTZUN - 629 428 025</p>	 <p>KATE INFORMATIKA</p> <p>%5eko deskontua 30 eurotik gorako erosketetan.</p> <p>IRURTZUN - 948 600 629</p>	 <p>MARTXUETA LIBURUDENDA</p> <p>%5eko deskontua irakurketako liburuetan.</p> <p>IRURTZUN - 948 600 704</p>
 <p>PATXI GALARZA AUTOZERBITZUA</p> <p>50 euroko erosketagatik, etxeko produktua doan.</p> <p>IRURTZUN - 948 600 685</p>	 <p>T. IRIARTE HARATEGI</p> <p>50 euroko erosketagatik, etxeko produktua doan.</p> <p>IRURTZUN - 948 500 087</p>	 <p>URREZKOA BITXIDENDA</p> <p>Bitxietan, 100 euroko erosketa egitean, %10eko deskontua.</p> <p>IRURTZUN - 948 500 335</p>	 <p>ZURE EKO DENDA</p> <p>%10eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.</p> <p>IRURTZUN</p>	 <p>VIZU ILEAPAINDEGIA</p> <p>30 euroko gastuarekin, %10eko deskontua.</p> <p>ITURMENDI - 948 563 635</p>
 <p>EDERNE ZENTROA</p> <p>15 euroko gastuarekin, bibotea depilatzea/ ileapaindegiko zerbitzuarekin, makilaje ukitua</p> <p>LAKUNTZA - 948 567 227</p>	 <p>HOSTOAK LOREZAITZA</p> <p>25 eurotik gorako erosketeatn, %8ko deskontua, garaiko landareetan ez ezik.</p> <p>LAKUNTZA - 672 401 326</p>	 <p>J. M. AGUIRRE HARATEGIA</p> <p>50 euroko erosketagatik, etxeko produktua doan.</p> <p>LAKUNTZA - 948 576 211</p>	 <p>LAKUNTZAKO OSTATUA</p> <p>Kafea/kopa doan</p> <p>LAKUNTZA - 948 576 025</p>	 <p>MENDIGAIN URDEIAZPIKOAK</p> <p>50 euroko erosketagatik, etxeko produktua doan.</p> <p>LAKUNTZA - 948 576 286</p>
 <p>NEREA ILEAPAINDEGIA</p> <p>Garbitu/moztu/apaindu 27 eurotan.</p> <p>LAKUNTZA - 948 576 331</p>	 <p>TANIA ARRAINDEGIA</p> <p>50 eurotako erosketagatik, etxeko produktua doan.</p> <p>LAKUNTZA - 948 576 300</p>	 <p>CLINKER JATETXEA</p> <p>Txupittoa doan.</p> <p>OLATZAGUTIA - 948 562 374</p>	 <p>IZASKUN BELTZA ARKITEKTOA</p> <p>%10a obra berrietan / %20a ziurtagiri energetikoan eta analisisia doan.</p> <p>OLATZAGUTIA - 617 998 334</p>	 <p>VALCARCE GASOLINDEGIA</p> <p>0,06 euro gasolinan eta 0,10€uro gasoleoan.</p> <p>OLATZAGUTIA - 948 564 513</p>
 <p>JAVIER AIZPUN HARATEGIA</p> <p>50 euroko erosketagatik, etxeko produktua doan.</p> <p>UHARTE ARAKIL - 948 464 243</p>	 <p>UHARTE GAZTA</p> <p>40 euroko erosketetan, etxeko produktua doan.</p> <p>UHARTE ARAKIL - 948 464 078</p>	 <p>LOPEZ D.GOIKOETXEA</p> <p>50 euroko erosketagatik, etxeko produktua doan.</p> <p>URDIAIN - 948 562 157</p>	 <p>KALUXA TABERNA</p> <p>Kafea/kopa doan</p> <p>URDIAIN - 948 460 291</p>	 <p>KIXKUR ESTETIKA ZENTROA</p> <p>Edozein produktu erostean, bigarrenan %20ko deskontua.</p> <p>ZIORDIA - 948 468 744</p>



Molina, Chamorro eta Villalobos, lortutako dominekin. UTZITAKOIA

Espainiako txapelketetatik domina gehiago iritsi dira

IRISTAKETA Unai Villalobosek bi domina eta Ander Chamorrok eta Leire Molinak bana ekarri dituzte

OVIEDO

Asteburuan haurren eta jubenen mailako Espainiako Iristaketa Zirkuituko Abiadura Txapelketa eta Espainiako Kimuen Mailako Kopa jokatu ziren Oviedon. Eguraldiak ez zuen batera lagundu, baina gure neska-mutikoak primeran aritu ziren.

Irristalari sakandarrak

Sakana Iristaketa Taldeko Maddi Goya, Maitane Igoa, Yeray Goikoetxea eta Jon Mintegi irristalariendako tamaina honetako txapelketan aritu ziren lehen aldia izan zen honakoa. Ana Rita Correiarendako, aldiz, bere hirugarren parte-hartzea izan zen. Esperientzia ederra izan zen guztiendako.

Jubenilen mailan, Unai Villalobosek bi domina jaso zituen: 15.000 m kanporaketan zilarrezko domina eta 200 m erlojupekoan

(18.649) brontzezkoa. Bestalde, 435 metroan laugarrena sartu zen eta 10.000 metroko puntuazioan ere laugarrena izan zen. Sailkapen orokorrean bigarrena sailkatu zen. Bestalde, Ander Chamorrok 435 m sprintean brontzezko domina lortu zuen (47.510) eta Leire Molinak 1.000 m sprint proban brontzezkoa. Unai Baztan ere oso ongi ibili zen. Anne Lapuente ziordiarrek erorikoa izan zuen 1000 m-ko esprintean eta baita 5.000 m puntuazioan, baina bosgarrena sailkatzea lortu zuen azken proba horretan.

IRISTALARI SAKANDARREK MAILA BIKAINA EMAN DUTE ESPAINIAKO TXAPELKETETAN

SAN MIGEL

Olaztiko San Migel Pilota Txapelketa

Asteburuan 5. jardunaldia dago jokoan.

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK

3. maila: Ion-Imanol / Grados-Markinez **18-16**
 2. maila: Gelbenzu anaiak / Ruiz de Azua aita semeak **18-12**
 1. maila: Lopez de Zubiria-Gartziandia Iñigo-Eñaut **18-6**
 2. maila: Flores-Martinez / Berat-Borrega **18-15**
 Zelaia-Grados / Ioseba-Unai **15-18**

5. JARDUNALDIKO PARTIDUAK

OSTIRALEAN, 20:30EAN

3. maila: Lauzurika-Muñoz / Grados-Markinez
 2. maila: Aiestaran-Tuero / Mendoza anaiak
 1. maila: Urteaga-Huarte / Otermin-Aldaz

LARUNBATEAN, 17:00ETAN

3. maila: Pleito-Ondatz / Imanol-Mikel
 2. maila: Elorza-Alfredo / Loban-Arbizu
 1. maila: Lopez de Zubiria-Gartziandia / Beloki-Aies

ANDRA MARI

Andra Mari ikastolako pilota txapelketako finalak, bihar

Uharte Arakilen, ikastolako festan.

FINALEKO PARTIDUAK

LARUNBATEAN, 10:00ETAN

- Aratz Razkin-Adur Verdugo / Amair Beraza-Oihan Iraurgi
 Oihane Villegas-Arhané Jimenez / Enara Balda-Izaro Zelaia
 Izai Martínez-Xabier Etxabari / Julen Ruiz-Oihan Garmendia
 June Campos-Julene Orella / Aintzira Lizarraga-Auritze Beltza
 Aimar Azanza-Miteku Jaka / Eki Errazkin-Berat Izagirre
 Osane Orella-Ainhoa Beruete / June Zubeldia-Uxune Campos
 Oihan Mariñelarena-Aritz Oiarbide / Iraitz Imaz-Eñaut Oiarbide



Ongay, Bergera eta Azanza pilotariak. Santxo da falta den bakarra. IRURTZUN

Bergera vs Ongay: nork jantziko du Irurtzungo txapela?

PILOTA Irurtzun Pilota Txapelketako final handiak jokatu dira bihar, larunbatean, 18:00etan, Bi Aizpen

IRURTZUN

XXV. Irurtzun Pilota Txapelketa azken txanpara iritsi da. Apirilean hasita, promesen mailan 8 bikote eta senior mailan 28 bikote lehiatu dira, afizionatuetako puntako pilotariak guztiak. Ligaxken ondoren, final laurdanak iritsi ziren eta azken bi aste hauetan finalerdien txanda izan da. Bihar, larunbatean, eta Irurtzungo Trinitate festen barruan, final handiak jokatu dira.

Promesen mailan Gilek eta Garateak Canabal eta Cordón izan zituzten aurkari. Eta seniorretan, berriz, Irurtzun klubeko pilotari ezagunak elkarren kontra ariko dira: Josu Bergera arruazuarrak, Santxo aurrelariaren laguntzarekin, Alberto Ongay satrustegierra eta Irurtzun klubeko Azanza atzelaria izanen ditu arerio. Txapela etxean geratuko da baina ikusteko dago noren burua apainduko duen.

Finalerdietan, Santxok eta Bergerak 22 eta 21 irabazi zituzten Ojueli eta Altunari eta Ongayk eta Azanzak 10 tantotan utzi zituzten Urbietan eta Mariezkurren.

Bestalde, larunbat goizean, 11:30ean, Irurtzungo Pilota Elkartek antolatutako haurren pilota partidak izanen direla pilotaleku irekian.

Irurtzungo finalak

Larunbatean, 18:00etan.

Promesak

Gil-Garatea / Canabal-Cordón

Seniorrak

Santxo-Bergera / Ongay-Azanza

DUATLOIA Gorka Garcia de Eulate Azkoitiko podiumean

Asteburuan XVIII. Duatloia jokatu da, Sprint distantzian -5 km korrikan-17 km bizikletan eta 2,5 km korrikan-. 150 duatleta inguruk osatu zuten proba eta Xabier Tijero izan zen azkarrena (53:55). Sakana Triatloi Taldeko Gorka Garcia de Eulate 16.a sartu zen helmugara, bere mailan, beteranoen 1. mailan, lehena.



Gorka Garcia de Eulate, podiumean.

Ange Jaka Akademia

680 615 877 ·
 lortia plaza ·
 Altsasu ·

- Ikasteko teknikak
- Ortografia
- Testuen ulermena
- Asignatura gehiago
- Euskara

Irurtzun, Nafarroako Kin-Ball topaleku

FUTBOLA Nafarroako Kin-Ball Txapelketa jokatu da bihar, larunbatean, goizeko 9:30etik aurrera Irurtzongo kiroldegian. Nafarroako 5 talde lehiatuko dira guztira: Kinballdarras, The Cracks KB, KB Iruña, The KB Bulls eta KB Hoberenak

IRURTZUN

Kin-Ball kirol berezia da. Kirol kooperatiboa da. Mario Demers soin heziketa irakasleak asmatu zuen, Kanadan, 80. hamarkadan. Helburu nagusia ikasleak baloreetan hezte da. Bere araudian ondoko baloreak lantzen dira: kooperazioa, hezkidetzeta, integrazioa, joko garbia, emakumeen parte-hartzea eta biolentziaren gaitzespena. Eta horretaz guztiaz gain, joko arin eta dibertigarria da.

Irurtzongo Atakondoa ikas-tetxean Kin-Balla lantzen dute aspalditik. Manuel Izaola soin heziketa irakaslearen bitartez iritsi zen kirol hau. Ikasleek oso gustuko duten kirola da, erabateko talde lana delako; jokalarik guztiak dira garrantzitsuak, inor ez da nabarmentzen. Baloieraldioa erabiltzen da, eta, hortaz, batek bakarrik ezin du kontrolatu, laguntza behar du. Inork ezin du pasibo egon eta talde lana da.

Bihar, goizeko 9:00etik aurrera

Iruñeko eta Irurtzongo gazteek osatutako 5 talde lehiatuko dira Nafarroako Kin Ball Txapelketan: Kinballdarras, The Cracks KB, KB Iruña, The KB Bulls eta KB Hoberenak. Manuel Izaolak azaldu digunez, 9 eta 15 urte bitarteko 10 neskatila eta 12 mutil dira. "Partidak 9:30ean hasiko dira. Partida bakoitzak ordu erdi inguru iraungo du eta aurreikusten dugu ordu biak inguruan jokatu dela finala" aipatu du Izaolak. Gutxinaka bere helburua lortzen ari da Izaola, Irurtzunen Kin-Ball taldeak sortzearena, hain zuzen.

Nola jolasten da Kin-Ballera?

Kin-Ball jokatzeko 4 pertsonaz osatutako 3 talde behar dira. Eta jakina, kin-ball baloi erraldoia, 122 zentimetroko diametroa duena. Taldeen helburua ahalik eta puntu gehien pilatzea da,



Irurtzunen kin-ballean jokatu, aurreko urteko txapelketan.

eta puntuak gainontzeko taldeek falta egiten dutenean lortzen dira. Baloieraren jabetza duen taldeak erabakitzen du zein talderi jaurtikiko dion baloia, eta aurretik berari jaurtikiko behar diola esango dio. "Omnikin arrox" esango du talde arroxari bota behar badio. Baloia lurrera erortzeko helburuarekin jaurtikiko du. Jakina, beste taldeak baloia lurrera joatea ekidin behar du eta baloia kontrolatzen saiatuko da. Baloiak lurra jotzen badu, baloia jaurtikiko duen taldeak eta euren txanda itxoi-ten dagoen beste taldeak puntu bana lortuko dute. Aldiz, taldeak baloia kontrolatzen badu, erasotzaile izatera pasako da, eta 10 segundoko tarte izango du baloia aukeratzen duen talderi jaurtizteko.

Araudiak dioenez, puntu gehien duen taldeari bota behar zaio baloia, beti. Normalean, hiru

KIN-BALLEAN TALDE LANA EZINBESTEKOA DA. JOKO OSO ARINA DU ETA KIROL GUZTIZ DIBERTIGARRIA DA

jokalarik baloi erraldoia eutsiko dute eta laugarrenak kolpatuko du. 13 puntu lortzen dituen lehen taldeak "periodo" delako bat lortuko du, eta 3 periodo lortzen dituen taldeak irabaziko du partida.



Jesulitoren agurra. XOTA

ARETO FUTBOLA Jesulito agurtu dute Xotako taldekideek

Jesulitok 8 urte eman ditu Xotan. Jaen Paraiso Interior taldeak fitxatu du andaluziarra eta asteartean Magna Gurpea Xotako jokalariek, Imanol Arregi entrenatzaileak eta klubeko kideek merezitako despedida egin zioten. "Gutako bat doa. Plazer handia izan da bere ondoan egon ahal izatea" azaldu zuen Imanol Arregik. Jesulitok biziki esker-tu zuen omenaldia.

JESULITO: "8 URTE HAUEK JENDE ON HONEKIN KONPARTITZEA PRIBILEGIOA IZAN DA"

ZIORDIKO FUTBOLA

4. JARDUNALDIKO EMAITZAK
Ziordia - Ingenieria Iradi **2-10**
Futsal Sakana - Auzomotojorik **6-9**
Los Suaves - Dia Ibaia (atzeratuta)
Atsedena: Aralar Mendi

1. JARDUNALDIK ATZERATUTAKOA
Ingenieria Iradi - Auzomotojorik **8-6**

Hurrengo jardunaldia ekainaren 18an jokatu da.

ELOMENDIKO KOPA

Elomendiko Kopan Arakilgo Zaldia finalerdietarako salkatu da, final laurdenetan Bidezarrari 4 eta 1 irabazi eta gero. Finalerdietan Zalduek Zizurko Ardoi izango du aurkari bihar, larunbatean, Zizurren. Beste finalerdian Basatik Elomendiren kontra jokatu du.

EMAKUMEAK ETXARRIN

Golik ez Etxarri Aranatzen
Etxarri Aranazko Futbol Taldeak emakumezkoen futbol partida antolatu zuen larunbatean. Nafarroako 16 urtez azpiko selekzioa eta Gasteizko Aurrera taldeak gogo guztiekin atera ziren zelaira eta partida ederra eskaini zuten. Nafarroan jokalarik sakandar bakarra zegoen, Aroa Cerezo lakuntzarra. Baloiak ez zuen sartu nahi izan eta husnako berdinketarekin bukatu zen lehia.

**ez duzu ahaztuko
no lo olvidarás**



**UDAKO
ESKAITZA
2017 CURSOS
DE VERANO**

aek
euskarako praktikoa

**SAKANA ITSASI
AEK EUSKALTEGIA**

A2 eta EGA ikastaro
trinkoa, uztailean (80 ordu)

AUTOIKASKUNTZA,
uztailean eta abuztuan

Izena emateko azken eguna:
ekainaren 27a

Sakanako Mank: BEKAK (%50)

Gartzia Ximenez 46, behea, ALTSASU
948 468 258 · sakana@aek.eus
itsasieuskaltegia.blogspot.com



laz Hamid Ben Daoudek garaipen ikusgarria lortu zuen: ia 6 minututan hobetu zuen errekorra (1:52:17).

XIV. Lakuntza-Aralar: iritsi da unea

MENDI LASTERKETAK Igandean, 9:30ean abiatuko dira korrikalariak Lakuntzako plazatik. Bi aukera daude: ibilbide luzea (25 km) eta ibilbide laburra (13,3 km). 10:00etan Mila Kolore elkartearen aldeko lasterketa solidarioa jokatu da

LAKUNTZA

Zabalarke klubak antolatuta, igandean jokatu da XIV. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa. Klubak Lakuntzako Udalaren, Lakuntzako Pertza elkartearen, Nafarroako Mendi Federazioaren eta hainbat babesleren laguntza izan du. Eguraldi ona dago iragarrita eta primerako lasterketa izatea, hori espero dute.

Aurreko urtean bezala, bi distantzien artean aukeratu ahalko dute korrikalariak: ibilbide luzea (25 km, 1.200 m desnibel positiboa) eta ibilbide laburra (13,3 km, 640 m desnibel positiboa). Bi probak aldi berean abiatuko dira Lakuntzako plazatik, 9:30ean. Ibilbide luzeak Guardetxera (1.035m) joko dute, handik Belokiko lepora, Txorrotxetara eta Unagako putzura (1.185 m) igo ondoren, Irumugarrietara (1.431 m) heltzeko. Hortik jaitsierari ekingo zaio, Desako bordatik (1.229 m) eta Pagomaritik. Etxaaltxeta (920 m) pasa ondoren, Arangunera iritsiko dira korrikalariak

eta handik behera joko dute, Lakuntzako helmugara.

Ibilbide motzekoak, aldiz, Guardetxera igoko dira, baina Mugerdiantz egin beharrean, Laruzgainara (1.103 m) joko dute, ondoren Etxaaltxetan (920 m) ibilbide luzearekin bat egiteko eta Lakuntzara jaisteko. Etxaaltxeta pasa ondoren Arangunera iritsiko dira korrikalariak eta handik behera, Lakuntzara.

Ibilbidean 5 kontrol gune eta 4 hornidura gune egongo dira. Ibilbide motzeko lehen partaidearen helmugaratzea 10:30erako aurreikusten da eta ibilbide luzeak 11:30erako. Akaberran, auzate ederra izango da. Guztia behar bezala antolatuko, 80 pertsona inguru ariko dira antolakuntza lanetan.

Sariak

Sari banaketa 13:15ean hasiko da. Korrikalari guztiek kamiseta tekniko bat eta produktu lote bana jasoko dute. Proba nagusiko irabazleek, gizon eta emakumeak, 250 euro, txapela eta trofeoa jasoko dituzte. Bigarrenek 100 euro eta trofeoa, eta hirugarrenek 50 euro eta trofeoa. Lehen lakuntzarrek, lehen sakanarrek, lehen beteranek, lehen juniorrek eta lehen promesek trofeoak jasoko dituzte. Ibilbide motzean, lehendabiziko hirurek garaikurra eta produktu lotea eskuratuko dituzte.

Gaur, izena emateko azken eguna www.herrikrosa.eus-en Gaur, ostiralean, gaueko 24:00ak arte eman daiteke izena www.herrikrosa.eus web gunean. Ibilbide luzerako, federatuek 15 euro eta federatu gabekoe 20 euro ordaindu beharko dituzte eta ibilbide motzerako federatuek 12 euro eta federatu gabekoe 15 euro. Atzo eguerdian, erredakzioa ixteko garaian, gutzira 178 korrikalari zeuden izena emanda.

IRUMUGARRIETA (1.431 M) IZANGO DA KORRIKALARIEN IGO BEHARREKO PUNTURIK ALTUENA

Aurreko urtean 250 korrikalari aritu ziren, 170 proba nagusian eta 80 laburrean. Proba nagusia Hamid Ben Daoud deriotarrak irabazi zuen eta ia 6 minututan hobetu zuen errekorra (1:52:17). Ia 10 minutu atera zizkion bigarrenari. Emakumezkoetan Alizia Olazabal nagusitu zen (2:26:57). Proba laburrean Alberto Martinez lakuntzarra (1:04:51) eta Izaskun Beunza olaztiarra (1:24:12) izan ziren txapeldunak.

Mila Kolore Elkartearen aldeko lasterketa solidarioa 10:00etan

Lakuntza-Aralar mendi lasterketaren bitartez Zabalarke elkarteak Sakanako Mila Kolore Elkarte lagundu nahi du. Elkarte horretako kidea da Josu Vilariño Arbizu, ama lakuntzarra duen gaztea. Horrela, goizeko 10:00etan lasterketa solidarioa antolatu du Zabalarke, adin guztietarako. Lasterketan parte hartzeko dortsal solidarioak salgai daude herriko tabernetan, 2 euroren truke, eta lasterketa hasi baino lehen ere plazan erosi ahalko dira. Plazari buelta bat ematea, hori da lasterketaren erronka. Dortsalengatik jasotako guztia Mila Kolore Elkarteari emango zaio eta parte hartzeko deia egin du Zabalarke.

Irurtzun: IV. Trinitate igoera

Irurtzango Guan taldeak, Udalaren eta Oreka zentroaren laguntzarekin, IV. Trinitateko Igoera antolatu du bihar, larunbatean. Korrikalariak 10:00etan ekingo diote kronoigoerari. 3 km-ko igoera da, 500 metroko desnibel positiboarekin. Proba bukatuta, sari banaketa eta zozketak egingo dira, eta otamena egongo da. Iaz 39 korrikalari hartu zuten parte eta Mutiloako Gorka Sarasibar (24:29) eta Ainhoa Oñatibia (29:45) izan ziren azkarrenak.

MENDI LASTERKETAK

Beraza laugarrena EH-ko Mendi Erronkan

633 korrikalari osatu zuten larunbatean, Leitzan, EH-ko Mendi Erronka. Euripean, Navasfriaseko Alvaro Ramos izan zen txapelduna (6:56:46). Jose Luis Beraza laugarrena sartu zen, probako lehen beteroa (7:08:16). Top 15ean beste hiru sakanar sartu ziren: 10.a Evaristo Noveleta, 13.a Aritz Ganboa eta 14.a Aritz Munarriz.



Aritz Munarriz, proban. N. MAZKIARAN

Sakandarrak EH-ko erronkan

Maila absolutua (67 km)

1. Alvaro Ramos: 6:56:46

4. Jose Luis Beraza (Uhar): 7:08:16

10. Evaristo Noveleta (Irur): 7:30:53

13. Aritz Ganboa (Arru): 7:38:00

14. Aritz Munarriz (Etx): 7:41:57

60. Alberto Razkin (Etx): 8:25:31

75. Vicente Beloki (Irur): 8:40:33

88. Alatz Agirre (Arb): 8:49:50

113. Javier Beraza (Irur): 9:02:24

141. J.J. Lopez (Alts): 9:17:21

205. Iñigo Etxarte (Irur): 9:45:53

247. Damian Andueza (Alts): 10:03:29

280. Alberto Anton (Alts): 10:19:54

317. Roberto Jaka (Etx): 10:43:15

319. Xabier Bergera (Alts): 10:44:27

405. Alberto Mtz de Lagran (Alts): 11:28:46

424. Julen Arratibel (Etx): 11:36:32

498. Felix San Roman (Alts): 12:29:29



Josu Etxeberria. ARTXIBOA

Josu Etxeberria hirugarrena Altsasun

TXIRRINDULARITZA

Burundako XXXII. Udaberri Trofeoan lehen urteko juniorra izan zen

Igandean juniorren mailako XXII. Udaberri Trofeoa jokatu zen Altsasun, Burunda Klubak antolatuta (86 km). Lasterketa nahasian, Turismo Villanua taldeko Raul Rota iritsi zen bakarrik helmugara (2:10:47). 52 segundora Aralarko Intersport Irabia taldeko Josu Etxeberria iturmendierra sartu zen, hirugarrena. Etxeberria lehen urteko juniorren sailkapenean lehen izan zen.

Ailetz Lasa (Q.A.) 19.a sartu zen, Xabier Mauleon (I.I.) 20.a, Iñigo Fernandez (Q.A.) 22.a, Beñat Etxezarreta (I.I.) 26.a eta Hodei Zia (Q.A.) 33.a. Taldeka Intersport Irabia hirugarrena izan zen eta Quesos Albeniz bosgarrena.

Kadeteak

Larunbatean, Larrabetzun, Intersport Irabiako Aitor Alberdi seigarrena sartu zen. Igandean, Gasteizen, Irabiako Igor Arrieta laugarrena sartu zen eta Quesos Albenizko, Unai Aznar 12.a eta Iker Mintegi 13.a, guztiak denbora berean.

Eskolakoak Etxarri

Bihar, larunbatean Etxarri Arantzen San Kiriko Txirrindularitza Saria dute jokoan eskola mailako txirrindulariek, 16:00etik aurrera, Burundabiden.

Korrikalariak larunbatean Iturmendin dute hitzordua

ATLETISMOA Bihar jokatu da XIII. Aitzkozar Herri lasterketa. 17:00etan txikiak eta 18:30ean nagusiak

ITURMENDI

Iturmendiko Aitzkozar eta Bakaikuko Bakarrekotxea elkarrekin antolatzen dute Aitzkozar Herri Lasterketa, makina bat babesleren laguntzarekin. Azkeneko edizioa Bakaikun jokatu zen eta, hortaz, aurten Iturmendin dagokio. Horrela, Iturmendin jokatu da, bihar, larunbatearekin, XIII. Aitzkozar Herri Lasterketa.

Lehenik eta behin txikiak probak jokatu dira. 17:00etan hasita, aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak, haurrak eta

kadeteak lehiatu dira. Ondoren, 18:30ean, jubenilen eta nagusien txanda helduko da, orduan abiatuko baita proba nagusia. Iturmendi eta Bakaiku artean prestatutako zirkuituari bi buelta emanda, guztira 8,1 km-ko proba izanen da jokoan dagoena. Iturmendiko lasterketa

Sakanako Kopa

Iturmendiko lasterketa Sakanako Kopa-Lasa Kirolak sarirako puntuagarria da.

Ibilbide gorabeheratsua osatu eta gero, sari ematea izango da



Korrikalariak irteko prest aurreko urtean Bakaikun.

Iturmendiko plazan. Partaide guztiak oroigarria jasoko dute eta lehendabiziko hirurendako trofeoa prest du antolakuntzak. Eta, jakina, bildutako guztiak auzate ederraz gozatzeko aukera izango dute.

Izena emateko

Iturmendiko Aitzkozar elkartean, lasterketa hasi baino ordu bat lehenago edo 948 562 034 edo 606 398 802 telefonoetan eman daiteke izena. Helduek 5 euro eta haurrek dohainik.

LASTERBIDEAN

SAILKAPENA

1. Aitor Mimenza (Elorrio)	27:13
17. Fran Araña (Arb)	32:15
99. Maria Goikoetxea (Etx)	38:22
136. Unai Razkin (Irur)	40:06
143. Haizea Rz de Alda (Alt)	40:19
145. Aritz Munarriz (Etx)	40:22
152. Santi Agirre (Itur)	40:40
191. Aingeru Azazeta (Alts)	40:41
192. Julen Martiarena (Uhar)	42:08
225. Gaizka Uharte (Uhar)	43:11
383. Mari Gwen Davies (Urd)	48:25
384. Isabel Pozueta (Alts)	48:26

Fran Araña 17.a sailkatu zen presoen aldeko lasterketan

Igandean jokatu zen, Oñatin, presoen etxeratzearen aldeko Lasterbidean lasterketa (8,3 km). Euriari aurre eginez 645 korrikalarik osatu zuten proba.

Aitor Mimenza bizkaitarra (27:13) eta Nuria Letamendi oñatiarra (33:17) izan ziren azkarrenak. Sakandar ugari parte hartu zuten lasterketan eta guztien artean Fran Araña arbizuarra izan zen azkarrena (32:15).



Eguraldiari buelta eman eta egun ederra pasa zuten parapentelariak.

Soilik hegan egitea falta izan zitzaien parapentelarietarako

PARAPENTEA Eguraldi kaxkarrari aurre eginez, Parapente Eguna ospatu zuten larunbatean Iturmendin

Larunbatean eguraldiak ez zuen batere lagundu eta parapentelarietarako ezin izan zuten euren zaletasunaz gozatu. Baina, hala ere, Iturmendi parapentelarien bilgune izan zen, Baiza Parapente Taldeak antolatutako Sakanako Parapente Eguna gontzietan erantzun baitzieten makina bat zaletuk.

Iturmendiko frontoian barra jarri zuten eta parapentelariak hornitzen dituzten enpresek euren postutxoak jarri zuten. Hortaz, parapente munduan dauden azken nobedadeak zu-

zenez ikusteko aukera izan zen. Horretaz gain, hainbat artisauek bere postutxoak jarri zuten, frontoiko estalpean. Bitartean, zer jan eta zer edan bazegoen, eta, gutxinaka, giroa berotzen joan zen. Eguraldiak ez zuen onera egiten, eta hegan egingo ez zutela ikusita, eguraldi txarrari aurpegi ona jarri eta Iturmendiko frontoiko festarekin jarraitu zuten makina bat tokietatik etorritako parapentelarietarako. Dentera, Zintz, La Inkilina eta Unnamables taldeen kontzertuek eta zozketek giroa berotu zuten.

CAMILLE EXTREME

SAILKAPENA

1. Hassan Ait	3:07:00
27. Fco. Jose Codon	3:39:12
34. Ander Unzurrunzaga	3:43:45
80. Igor Artieda	4:06:58
107. David Mutiloa	4:16:05
242. Fermin Zornoza	4:59:33
359. Maite Zabaleta	1:03:22

*Oharra: Sailkapenean ez da korrikalarien jaioterriaren berri ematen eta gerta daiteke sakandarren bat zerrenda honetan ez egotea.

Codon eta Unzurrunzaga aurrean

Igandean jokatu zen, euripean, Camille Extreme mendi lasterketa ezagun eta gogorra (31 km); tartean Ezkaurre mitokoa (2.047 m) igo behar izan zuten korrikalariak. Hassan Ait izan zen proba osatu zuten 415 korrikalarien artean azkarrena (3:07:00). Sekulako maila eman zuen. Emakumezkoetan Laura Sola (03:36:32) gailendu zen.





Bikerrek gure paraje pribilegiatuak ezagutuko dituzte. ANA VILCHES

Altsasu, bikerren bilgune izango da igandean

MENDI TXIRRINDULARITZA Igandean, 9:00etan ekingo diote txirrindulariek XXII. Altsasuko BTT Zeharkaldia proba ez lehiakorrari. Bi aukera dituzte: ibilbide luzea (50 km) eta laburra (40 km). Omenaldia egingo diote iaz zendutako txirrindulariari

Barranka Txirrindularitza taldeak guztia prestatua du 2017ko XXII. Altsasuko BTT Zeharkaldia arrakastatsua izateko. Aurreko urtean bezala, antolakuntzak bi ibilbide prestatu ditu: luzea (50 km) eta, lehenengoz, laburrago bat (40 km).

Ibilbidea

Goizeko 9:00etan abiatuko dira bikerrak. Herrian barna 3,5 kilometroko buelta neutralizatua egin eta gero ekingo zaio bideari. San Pedro bidetik Urdaingo igerilekuetara joko dute, mendira sartu eta Iturmendiko mugaraino iritsiko dira. Iturmendiko basotik jaitzita, Bakaikuko mendirantz egingo dute. Ondoren, Etxarriko igerilekuraino iritsi eta buelta hartuta Bakaikuko Guerra Hermanos fabrikaraino iritsiko dira, Aritzalkotik Etxarriantz jotzeko. Errepidea gurutzatu eta Kontzesio baselizara iritsiko dira.

Bertan hornidura gunea egongo da. Handik Etxarriko Txuixoo

harrobi zaharreko igoerari ekingo diote.

Bakaikutik Urdaingera iritsiko dira. Beheko baserrietaraino joko dute eta xendetatik barna Damerora iritsiko dira eta handik Dantzalekuko igerilekura. Ibilbide motzekoek Altsasuko helmugara joko dute eta luze-koek, aldiz, aurrera egingo dute, Sorozarretaraino heltzeko. Torretxikira igoko dira eta Lanbide Heziketako errotondara jaitziko dira, bertatik helmugara jotzeko.

Txirrindulariek kamiseta, Katedralde pateea, Arbizu txistorra eta Lacturale esnea jasoko dute opari. Guztia antolatzekeo 70 boluntario inguru ariko dira lanean.

**AURTEN LEHENENGO
ALDIZ ETXARRI
ARANAZKO TXUIXOO
HARROBI ZAHARRERA
IRITSIKO DIRA**

Iganderako eguraldi ona iragarri dute eta parte-hartze ona espero da. Atzo 431 txirrindulari zeuden izena emanda. Parte-hartze errekorra 2006 urtekoa da. Urte hartan 1.302 bikerrek osatu zuten proba.

Izena ematea zabalik

Aurretiko izena ematea gaur ixten da, ostiralean, 12:00etan, www.barrankatt.com web orrian. Baina igandean, probaren egunean bertan, apuntatzeko aukera egongo da 7:30etik aurrera.

Omenaldia iaz zendutako txirrindulariari

Aurreko urtean Altsasuko Zeharkaldian parte hartzen ari zela bihotzekoa izan zuen Antonio Manuel Da Silva Correia. Handik egun batzuetara hil egin zen. Barrankakoek, familiaren oniritziarekin, hura omenduko dute. Bere emaztea zenak moztuko du probaren hasierako zinta eta haren lagunek lehen kilometroak aurrean egingo dituzte.



Gorka Izagirre txirrindulariak moztu zuen probako hasierako zinta. BARRANKA

Euria, Sakana-Burundako martxako protagonista

TXIRRINDULARITZA Probara aurkeztu ziren 90 txirrindulariek ibilbide motza osatu zuten (118 km)

Aurten nobedadeekin zetorren Barranka Txirrindularitza Taldeak antolatutako VII. Sakana Burunda 2017-Gran Fondo Navarra bizikleta martxa ez lehiakorra. 124 km-tik 160 km-ra luzatu zuten ibilbidea, Goñi eta Lizarraldean sartuta. Horretaz gain, 118 km-ko ibilbide laburra zegoen. Baina goizeko 8:00etan, hain justu ibilbide luzeokoak atera behar zirenean, euri-zaparrada potolua hasi zen. Antolakuntzak ibilbide luzea bertan behera uztea eta guztiek ibilaldi laburra egitea erabaki zuen, "San Migeleko kronoigoera baldintza hauekin egiteak dakarren arriskua eta beste ekiditeko".

160 txirrindulari zeuden izena emanda, bi probatan, eta azkenean 90 izan ziren irteerara aurkeztu eta proba laburra egitera animatu zirenak. Movistar Team taldeko Gorka Izagirrek moztu zuen hasierako zinta.

Irurtzunera bidean, Sakanako herri ia gehienetatik pasa ziren. Irurtzunik, Izurdiaga eta Errotz zeharkatuta, Anotz, Goñi, Aizpun, Genbe, Vidaurre, Muez eta Lezaunera iritsi ziren. Lizarragako portua jaitzita, Altsasurantz jo zuten, Altsasura San Pedrotik iritsita.

Goñi San Migel ordez

Lehiaketari saltsa emateko San Migeleko igoera kronometratzen da beti. Aurten, San Migel ez igotzea erabaki zuten, Goñiko portuko igoera (8,3 km) kronometratu zuten. Portua igotzen azkarrenak Asier Irigoien (16:27) burlatarra eta Aintzane Barrena gasteiztarra izan ziren (24:18).

Helmugara iritsita fideuá bikainarekin indarrak berreskuratzekeo aukera izan zuten txirrindulariek, Gure Etxean eta ibilbidea oso polita zela nabarmendu zuten guztiek.

MENDI TXIRRINDULARITZA Powerade Non Stop Irurtzunen

Powerade Non Stop Series mendi txirrindularitza proba berezia da. Donostiatik aterako dira bikerrak ekainaren 9an, ostiralean, eta igandean Bartzelonara heltzea dute helburu, 709 km osatu eta gero. 300 biker baino gehiagok hartuko dute parte eta ibilbidea xenda eta bidexketatik egingo dute. Probako kontrol eta hornidura gunea bat Irurtzu-

nen egongo da. Gaur, ostiralean, gaueko 11:30etik aurrera hasiko dira txirrindulariak heltzen, eta goizaldeko 3:30 bitartean egongo da zabalik gunea. Txirrindulari irurtzundar batzuk ere bertan parte hartzen ari dira eta gauerdian, 24:00ak inguruan pasako direla aurreikusten da.

Irurtzun izenarekin lehiatuko da Mikel Rubiok, Ruben Moralek, Diego Gomezek eta Iñigo Lasartek osatutako taldea. Primerako ongi-etorria egingen die jaioterrian.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI.gutunak@guaixe.eus

OSTIRALA 09

ARBIZU Sakanako Eskola Txikien festa.Deialdia.
Plazan, 10:00etan.**ETXARRI ARANATZ Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da**Deialdia.
Kale Nagusiko 7. zenbakian, 19:00etan.**ALTSASU Altsasukoak ASKE**Deialdia.
udaletxe parean, 19:00etan.**OLATZAGUTIA Zergatik erabaki?**Imanol Iberok (EHNE Nafarroa), Joseba Garmendiak (ekonomilaria), Pili Vicente Imazek (psikologoa) eta Gurutze Goikoetxeak (gizarte langilea) burujabetzaz ariko dira, GEDEk antolatuta.
Kultur etxean, 19:30ean.**ARBIZU / ETXARRI ARANATZ Euskal Presoak Euskal Herrira!**Deialdia.
Herriko plazetan, 20:00etan.**ETXARRI ARANATZ Joxe Mari****Iparragirre antzezlan.**Andra Mari ikastolako DBH 1eko ikasleek jokatu dute.
Kultur etxean, 21:00etan.**ALTSASU Burning Heads, The Skippers eta Bultz**Kontzertua.
Altsasuko gaztetxean, 22:00etan.**OLATZAGUTIA Las buenas intenciones (Amity Gaige)**Literatura, irakurle taldea.
Olatzagutiko liburutegian, 21:00etan.**ALTSASU Z La ciudad perdida**Zinea.
Iortia kultur gunean, 22:00etan.**IRURTZUN Acera, Sofokaos eta Vertigo.**Kontzertua.
Larrazpi gazte elkartearen, 23:00etan.

LARUNBATA 10

LAKUNTZA Hatortxu RockJaialdia antolatzeko auzolana.
Plazan, 08:00etan.**ALTSASU**

Altsasu-Azanza-Altsasu (96km)

bizikleta martxa

Baratzeko bideko lokomotoratik, 08:00etan.

ETXARRI ARANATZ Etxarri eta Bakaiku arteko toponimia ibilbidea, Jose Luis Erdoizak gidatuta.

udaletxe estalopetik, 09:00etan.

UHARTE ARAKIL Jaialdia.Andra Mari ikastolaren eguna.
Herrian barna, 10:00etatik aurrera.**ALTSASU "Musika Erdi Aroan" kontzertua eskainiko du**Erkudengo Ama abesbatzak.
Iortia kultur gunean, 20:00etan.**IRURTZUN Larrazpitek**Tekno-sesioa. Marla Singer, David Torres, Invader onë, Editer, Urko eta Gordon dj-ak ariko dira.
Larrazpi gazte elkartearen, 22:00etan.**ALTSASU La Banda del Jefe Bigun eta Txaston**Kontzertua.
Urtzi tabernan, 23:00etan.

IGANDEA 11

ALTSASU Altsasuko zeharkaldia**(50km)**Bizikleta martxa.
Foru plazatik, 09:00etan.**OLATZAGUTIA X. pintura azkarreko lehiaketa.**Herrian barna.
Herrian zehar 09:00etan.**ETXARRI ARANATZ Abesbatza txikia.**Kontzertua.
Andra Mari ermitan, 17:30ean**LAKUNTZA Elai Alai dantza taldearen eguna.**Kalejira.
Herrian barna, plazan bukatzeko, 18:00etan.**ETXARRI ARANATZ Topa ikuskizuna.**Kukai eta Brodas Brosek euskal dantzak eta hip-hop uztartzen dituzte.
Herriko plazan, 19:00etan.**ALTSASU Euskal Presoak Euskal Herrira!**Deialdia.
Herriko plazan, 20:00etan.**ALTSASU Z, La ciudad perdida.**Zinea.
Iortia kultur gunean, 20:10etan

ASTEAZKENA 14

ALTSASU Mural herrikoa7 hilabete eginen dituzte preso hiru gazte altsasuarrak eta hori gogoratzeko ekimena da.
Iortian, 19:00etan.

OSTEGUNA 15

ALTSASU ¿Qué está pasando en Venezuela?hitzaldia emanen du Iñaki Gil de San Vicentek, Askapenak antolatuta.
Gure Etxea eraikinean, 18:30ean.**ARBIZU Argindar faktura ulertu eta aurrezteko hitzaldi-tailerra.**GOIENERREK emanen du.
Udaletxe batzar gelan, 19:00etan**IRURTZUN Burujabetzari bai.**Independentistak Sareak hilaren 18an bai bozkatzeko hamaika arrazoi emanen ditu Sakana mailako ekitaldian.
Plazan, 19:30ean .

ZORION AGURRAK

**Beñat Lz. Gauna Etxagibel**
Zorionaak! 6 urte bete eta oporrak!! Segi horrela hain wapo eta alai eta amatxo futbolakin gutxiago mareatzen. Muxu potolo Onintze, aita eta amaren partez.**Gurrpil**
Aupa gure parrandetako gurrpiltxo eroak dagoeneko 38 urte bete ditu...eta sasoi onenean dago, beraz jarrai diezaiozun bueltan ematen! Jauduyudoo! Social Friday.

Erakusketak

OlatzagutiaPintura eta lentzeria ikastaroetako lanak
Garagarrilaren 10ean, larunbatean, 19:00etatik 21:00etara eta garagarrilaren 11n, domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara Olatzagutiko kultur etxean**Altsasu**Koldo Aranz arte eskola
Garagarrilaren 18ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean.

Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com - www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 - Telefono mugikorra: 690 641 860

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK
ERRENTAN

Alokairuan hartuko genuke etxea edo pisua Urdaingen. Tel 618 901 894.

Lakuntzan gela bateko apartamentua alokatzen dugu, herriko etxe batean dago. Tel 679 50 54 64 Itzi.

LOKALA ERRENTAN

Urdiaingo Aitziber elkarteko taberna alokairuan uztaileko eta abuztuko jaientarako. Enkantea Aitziber elkartean ekainaren 15ean arratsaldeko 20:00etan. Alokairuko hasierako salneurria 2.000 € Kartazal ibian izango da bakoitzaren diru eskaintza. Emaizta egun horretan bertan jakinaraziko da arratsaldeko 20:30ak aldera. Elkarteko edozein bazkidek azken aukera egiteko eskubidea du. Informazio gehiago aitziberelkartea@gmail.com.

LANAK-NEGOZIOAK

LAN ESKAINTZAK

Sakanako hiru Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateen prebentzio zerbitzuek Jaibuserako arduradunak bilatzen ari dira. Interesatuak hiru mankomunitateekin harremanetan jarri daitezke: Irurtzun eskualdekoa 948 600 694, Etxarri Aranzako eskualdekoa 948 460 752 eta Burunda mendebaldekoa 948 467 662.

OHARRAK

Olatzagutiko irakurle taldea. Amity Gaige-ren Las buenas intenciones

liburuaz hizketatzeko elkartuko da garagarriaren 9an, 21:00etan, Olatzagutiko liburutegian.

Otaiko ermitaren alde. Eraikina konpontzeko diru bilketa egiten ari dira. Ekarpenak parrokiaren edo herriko banku eta kutxetan zabalduz kontuetan sartu daitezke.

Enplegarritasuna hobetzeko biterkeritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresari Elkarteak langabeei eta lan bila dabilenentzako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

Josefina Arregui Klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 euro edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosejosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosejosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cedema-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jardura sondotzea. Argibide gehiago: 948 5 6 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Auzolana Josefina Arregui klinikari. Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinikari) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

3MBk kontu korrontea zabaldu du Rural Kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalduz eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zugabe-ezin>.

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxauria gaztelua euskaldunen zatitza erreskuratu nahi da. Nafartarren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94

OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

GALDUTAKOAK

Mugikorra galduta. Norbaitek mugikorra bat aurkitu badu Iturmendi ateraen, Bakaikura bidean, mesez dezi dezala 620 988 443 telefonora.

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, erazturak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

www.iragarkilaburak.com

JAIOTZAK

Luka Mauduit Senar. Etxarri Aranzaten, maiatzaren 26an.

Izei Andueza Martin. Altsasun, maiatzaren 31n.

Mae Auza Eraso. Irurtzunen, ekainaren 1ean.

Iker Galbete Herrero. Olatzagutian, ekainaren 5ean.

HERIOTZAK

Maria Pilar Navarro Larraza. Unanun, maiatzaren 25ean.

Filomena Ihaben Lazkoz. Hiriberrin, maiatzaren 29an.

URTEURRENA

Jose Antonio Goñi Jaka

I. urteurrena



Orain dela urte bat gure aldamenetik joan zinen, baina gure bihotzetatik sekula ez zara joanen.

I. urteurrenako meza: Ekainaren 11n, eguerdiko 12:00etan, Etxarri Aranzako elizan.

Etxarri Aranzatz, 2017-06-19.

Zure familie

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo eskela@guaixe.eus

► Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68€
prezio hauek BEZa barne dute.

► Bazkideek % 10eko deskontua dute.

► Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00ak baino lehen.

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKIAK@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

• Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldatetarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• Weborriko ez dago eperik

• GUAIXE ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta Guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Aste batez 3 euro, bi astez 6 euro eta hiru astez 8 euro (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 09



Min. **14°**
Max. **23°**

Larunbata, 10



Min. **15°**
Max. **31°**

Igandea, 11



Min. **19°**
Max. **30°**

Astelehena, 12



Min. **14°**
Max. **22°**

40 aniversario
TANATORIOS IRACHE

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

Euskarazko sormena ereiten

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak haur eta gazteen artean gure hizkuntzaz sortze lanak egitera gonbidatu zituen. Maria Markotegi sari-
ketaren bidez egin zuen hori. 1.113 lan aurkeztu dira lehiaketako lau ataletara. Euskara Bazardeko buru Felix Altzelaik nabarmendu zuen urtetik urtera gero eta sorkuntza lan gehiago jasotzen ari direla eta kopuruarekin batera, urtetik urtera, kalitatea hobea dela. Lehiaketan parte hartu zuten ikastetxeei eskerrak eman zizkien. Altzelaik guztiei heldu den urtean parte hartzerako gonbidatu zituen.

Egile guztiek oroigarri bana jasoko dute parte hartze hutsagatik. Epaimahaiaren sariak ere badaude eta horiek Lakuntzako kultur etxean banatu ziren atzo. 26 sari izan ziren banatu zirenak, 1.260 euro eta 4 pintura zorro.

Euskaltegian ari diren sakan-darrek euren sormena euskaraz trebatzeko aukera ematea. Horixe da, Euskara Zerbitzuak antolatu duen nano-ipuina lehiaketaren helburua. Euskara ikasleez aparte Mintzakide programako kideek ere parte hartu dezakete. Erronkari heldu eta lehiaketara, guztira, 77 narrazio labur aurkeztu zituzten.



Maria Markotegi lehiaketan saritutako haur eta gaztetxoak. NEREA MAZKIARAN



Margolaria lanean. ARTXIBOA

Olatzagutia margolarien modelo bihurtuko da

Pintura azkarreko lehiaketaren 10. edizioa jokatu da igandean, 9:00etatik aurrera

Herrian gogoko tokia opatu, astoa jarri eta haren gainean koadro txuria. Eroso jarri, pintura kutxa zabaldu eta mihise gainean pintzela dantzatzeko hasi. Halaxe eginen dute margolariak Olatzagutian etzi. Hamargarren edizioa du pintura azkarreko lehiaketak. Hiru mailetan jokatuko da lehiaketa: haurrak (11 urtera arte), gazteak (12-15 urte) eta helduak (16 urtetik gora). Azken bi mailetan ariko direnek kultur etxetik 8:00etatik 9:00etara pasa beharko dute eta han margotuko duten egiturari jarri beharko baitzaio. 9:00etan hasiko dira margotzen. Lanak kultur etxean 17:00etatik 18:00etara aurkeztu beharko dituzte. Hurrei dagokienez, igandean, 9:00etatik 10:00etara emanen dizkiete margotzeko euskarriak.

Izen ematea gazte eta helduen mailan zabalik dago. Gaur, 14:00etaraino, udaletxeko bulegoan, 948 562 446 telefono zenbakira hots eginez edo kultura@olazti.com e-posta helbidera idatziz egin daiteke. Lehiaketaren egunean bertan, 9:00ak baino lehen ere. Informazio gehiago www.olazti.com web orrian opatu daiteke. Haurren mailan marraketa materiala izanen dira sariak, gazteenean baleak eta dirua helduenean

Saridunak

Atala / Maila	Egilea	Ikastetxea	Izenburua
Ilustrazioa / LH 1.-2.	Rahima Gelti	Luis Fuentes IP	--
	Laia Sueskun Herreros	Zelandi IP	--
Ilustrazioa / LH 3.-4.	Markel Razkin Goikoetxea	Andra Mari ikastola	--
	Magali Urteaga Carreño	Iñigo Aritza ikastola	--
Komikia / LH 5.-6.	Irati Nuñez Flores	San Donato	Urtaroak
	Aitana Igoa Nazabal	San Donato	Txiklezko atmosfera
Komikia / DBH 1.-2.	Aintzira Arretxe Carrasco	Andra Mari ikastola	Kick-Ass
	Nerea Etxabarrri Berastegi	Andra Mari ikastola	Pitiki
Komikia / DBH 3.-4.	Jokin Murgialdai Elortza	Jesusen Bihotza	Bizitza errealean sare...
Narrazioa / LH 5.-6.	Aiora Larraza Salinas	Luis Fuentes	Zerua berdea da, ala ez?
	Asier Somocurcio Perez	Zelandi	Nire aiton-amonak eta ni
Narrazioa / DBH 1.-2.	Narrea Carrasco Macho	Altsasu BHI	Bidaia txoa ludia aldatzeko
	Joseba Solis Alonso	Jesusen Bihotza	Ez, epai bat izango da
Narrazioa / DBH 3.-4.	Amaia Murgialdai Elortza	Jesusen Bihotza	Amets bat itsasoan
	Julen Soto Satrustegi	Andra Mari ikastola	Murgildu abenturan
Poesia / LH 5.-6.	Maialen Irisarri Igoa	Zelandi	Urtaroak
	Gorka Gasco Claver	Zelandi	Inauterian
Poesia / DBH 1.-2.	Jose Luis Martin Rosa	Jesusen Bihotza	Kapitainari gutunak
	Anne Lapuente Perez	Jesusen Bihotza	Nik, begi batzuk nahi ditut
	Maddi Lizarraga Senar	Altsasu BHI	Izarrek ihes egiten ...
Poesia / DBH 3.-4.	Amaia Murgialdai Elortza	Jesusen Bihotza	Dibertsitatearen ...
	Jon Aldasoro Goikoetxea	Jesusen Bihotza	Ama hizkuntza
Euskaltegiak - 1	Patxi Rodriguez Orellana	Altsasu	Erlea eta eltxoa
Euskaltegiak - 2	Ariane Paniagua Prieto	Etxarri Aranatz	Aukera bat
Euskaltegiak - 3	Inaxio Lezea Arakama	Altsasu	Garai hartako "sinpa"

Aritu diren ikastetxeak

Jesusen Bihotza ikastetxea
Altsasu BHI
Zelandi ikastetxe publikoa
Iñigo Aritza ikastola
Urdiaingo Herri Eskola
Arrano Beltza ikastetxe publikoa
San Donato ikastetxe publikoa
Andra Mari ikastola
Luis Fuentes ikastetxe publikoa
San Miguel ikastetxe publikoa
Domingo Bados ikastetxe publikoa
Atakondoa ikastetxe publikoa.
Itsasi euskaltegia

Arnazen ikasleen lanak Altsasuko Iortian

Garagarrilaren 18ra arte, astelehenetik ostiralera, 18:30etik 21:00etara bisitatu daiteke erakusketa. Makina bat ikasleren koadroak ikus daitezke, hainbat teknikekin eta teknika nahasiekin sortutakoak

Koldo Arnazek azaldu digunez, bere arte eskolan, "ikastea eta gustuko momentuak pasatzea da jendearen helburua. Erremate gisa erakusketa hau egiten dugu. Jendea nola gelditzen den zain egoten da". Ikasketa prozesuaz, Arnazek azaldu digu haurren eta helduen artean desberdintzen duela. "Helduek beren artelanak, argazkiak... egin behar dituenak beraiek aukeratzen dituzte. Batzuetan baten bati aholkuak ematen dizkiot, nonbaitetik bideratzeko". Haurrekin, berriz, "hasien direnekin proposamen batzuekin bideratzen ditut, teknika desberdinak lantzeko. Autonomia hartzen dutela ikusten dudanean haiei lanak aukeratzen uzten diet".

Txikienekin oinarrizko teknikak lantzen hasten da, akrilikoetaraino. "Olioekin ez gara sartzen, beste arrisku batzuk dituelako. Adin batetik aurrera hasten naiz olioarekin. Argizariak, pastelak, arkatzak... denetarik. Normalean erabiltzen diren teknika guztiak. Poliki-poliki ikatza sartzen joaten naiz. Beraiek disfrutatzen eta beste teknikak ikusteko". Kolore bi-ziagoak erabiltzen dituzte haurrek, "sormen potentzial hori hor dago".



Bisitariak erakusketa ikusten.

Helduekin ikasketa prozesu bera lantzen du, marraztea lantzen hasi eta "hortik aurrera bakoitzak bideratzen du bere teknika edo lana nahi duen tokirantz". Olio, akrilikoa, pastelak, nahasketak, txinatar tin-

ta, arkatzak, akuarela... Eskua trebatu ahala "aurreratzen ari direla ikusten" dela aitortu du Arnazek. Iortian aipatutako teknikekin eta Arnazek emandako askatasunarekin egindako lanak daude.

Euskal hip dantza hop, Kukai eta Brodasekin

Bi dantza konpainia: Kukai eta Brodas Bros. Bi dantza mundu: euskal dantza eta hiri dantza. Euskal Herria eta Katalunia. Bien lanen uztarketa da Topa ikuskizuna, euskal dantza tradizionalaren lengoaiarekin batu dute hip-hopa. Kalea, Etxarriko plaza, kasu honetan, espazio eszeniko bihurtuko dute dantzariak. Lauk hain zuzen ere.

Musika entzundakoan gazteek haiendako ohikoa denari ekinen diote: dantzari. Hura baita haien adierazpidea da. Dantzari esker dira diren bezalakoak.

Dantzakera desberdinak kaleak batzen ditu. Hala, nor bere jatorri artistikoei uko egin gabe, talde bizi eta energiko batean elkartuko dira, elkarrenganako ezagutzaren bidez interpreta-tzaileak aberastu ahal izan daitezten. Adierazpen garaikideak dira, hirietako plazetan gaur egun elkarrekin aritzen direnak.

Hiru jatorri, baina denek punk-rock doinuak joz

Gaur, 22:00etan, Altsasuko gaztetxean punk-rock jaialdia izanen da. Frantziako Orleans hiritik etorriko da Burning Heads taldea, eskarmentu handiko laukoa. Japoniakoa da The Skippers taldea. Bi taldeek Europan barnako bira egiten ari dira eta haiekin batera oholtza Elorrioko eta Abadiñoko Bultz laukoteak partekatuko du.

Elai Alai dantza taldearen eguna Lakuntzan

Elai Alai dantza taldeak bere eguna ospatuko du igandean. Segizoak herrian barnako kale-jirari ekinen dio 18:00etan. Hainbat geldialdi egingen dituzte dantza trebezia erakusteko. Plazan bukatuko dute, han ere dantza saioa eskainiko dute. Ondoren denendako zabalik izanen den merendua izanen da. Eguna erro-meria alaiarekin despedituko da.

Bi talde ezagunen kontzertua bihar Altsasun

Larunbatean, 23:00etan, Altsasuko Urtzi tabernan "etxeko" bi talde ariko dira. Batetik, Txaston taldea, dantzarako eta kanturako doinuak eskainiko dituzten, 80ko hamarkadakoak asko. Bestetik, ongi pasatzeko eta rock festa eskainiko du La Banda del jefe Bigun laukoteak. Euren 70 eta 80ko hamarkadetako rock eta heavy klasikoen bertsoiak joko dituzte.

Trinitateko festek Larrazpi doinuz beteko du

Trinitateko festak direla eta Larrazpi gazte elkarteak eskaintza bikoitza antolatu du. Gaurkoan kontzertuen txanda izanen da: Acera (R&R), Sofokaos (punk-rock) eta Vertigo (rock-metal). Larunbat 22:00etatik aurrera, sei disko-jartzaileekariko dira Marla Singer, David Torres, Invader oné, Editer, Urko eta Gordon.

Erdi Aroko musika kontzertua elkarlanean eskainia

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean lau musika talderen emanaldia izanen da

Kontzertu monografikoa eskainiko dute Erkudengo Ama abesbatzak, Gasteizko Ariadna soka laukoteak, Sagrado Corazon ikastetxeko abesbatzak eta Altsasuko Musika eta Dantza Es-lau kolako abesbatzak. Guztiek

elkarrekin Erdi Aroko musikan barnako bidaiak eskainiko dute, hasi 500. urtetik eta 1750era arteko epea hartuz. Musikaren historiako "udaberria" litzatekeen erreperitorioa prestatu dute horretarako.

Lau musika erakunde partekatuko dute eszena. Erkudengo Ama abesbatzak eta Ariadna soka laukotea bi zatitan elkarrekin ariko dira. Eta haien erdian Isabel Acevedo (biolina), Alaitz Aiala (biolina), Ainhoa Marauri (biola) eta Estibaliz Oraa (biolontxelo) soka laukoteko kideak bakarka ariko da. Kontzertua haurren abesbatzen parte hartzearekin batera despedituko dute. Biharkoa eta gero, Altsasuko abesbatza Orreagan izanen da garilaren 8an.



Erkudengo Ama abesbatza. ARTXIBOA

"Ikasteen badakizu errealitatea ez dela hala"

NAHIA URKIA IHABAR

Mank-eko Anitzartean, Kulturartekotasun Zerbitzuan bekaduna

Alfredo ALVARO IGOA SAKANA

1. Zer ikasi zenuen?

Bilbon Arte Ederrak ikasten hasi nintzen. Ikusi nuen gehiago zaletasuna zela eta, Gizarte Lana aukeratu nuen, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Graduatu gara. Gradu Akaberako Lana entregatu dugu eta, orain, memoria, praktikena.

2. Zergatik Gizarte Lana?

Nire ustez dena dago elkar lotuta Gizarte Zientzietan. Klaro, alor desberdinak daudela. Baina Gizarte Lanaren kutsu hori, pixka bat hezitzea eta bizia den bide horretan laguntzea, zerbait polita iruditzen zitzaidan. Eta Gizarte Lanaren barruan desberdinak diren beste alorrek badaude ere. Aukera handi bat zuen eta nire burua horretara egokituago ikusten nuen, ni naizenarengatik gehien bat.

3. Ikasketetan praktikak, ezta?

Graduak lau urtekoak dira eta azkeneko bi urtetan praktikak. 3. mailako praktikak ordu gehiago dira. Orokorrak dira. 360 ordu direla uste dut. Nik aukeratu nuen Altsasu institutuaren. Gizarte Lana institutuaren sar-



Nahia Urkia Ihabar, Altsasuko azokan. GUAIXE

tzeko proiektu pilotu bat dago eta hor parte hartu nuen. Esperientzia oso ona. Pila bat ikasten duzu. Oraindik bide asko dago egiteko hor.

4. Eta azkenekoan?

4. mailan, pena ematen du, baina praktika ordu gutxiago dira: 200 ordu. Nik daukadan familia bizitzagatik, gertokotasuna beste kulturekin eta horrela, beti oso eroso sentitu naiz. Gainera, oso irekia naiz.

Jendearekin harremanak izateko ez daukat arazo handirik normalean. Eta esan nuen: Sakanan, niri gustatzen zaidan arlo bat eta behar bada karrean oso ukituta ez dudana: Sakanako Mankomunitatearen Anitzartean, kulturartekotasun zerbitzua. Suertea izan dut tutore bikaina izan dudala, ikaragarriko praktikak egiten utzi dit. Aurtengo 200 orduak ez dakit zenbatetan bilakatu diren; kontua galdu dut.

5. Zertarako dira praktikak?

Teorikoki hau sortuta dago, nire ustez, zuk lan mundua zer den ikusteko. Hori hobe landu beharra dago. Tokatzen zaizun praktika zentro edo zerbitzuen arabera asko ere ez duzu ikusten. Hemen lan mundua benetan zer den ikusteko aukera izan dut. Antolatu, gauzak zerotik egiten hasi... dena azkenean. Ez dela bulego batean egotea, jendearekin, kalean egon behar da.

6. Zuen lanarekin hori tokatzen zaizu, ezta?

Horixe. Hori da zerbitzutik gehien gustatzen zaidana, ez dela zerbait inpersonala; zuzenean kontaktua daukazu; jendearekin erlaziozartzen zara, erlazioak sortzen dituzu eta oso aberasgarria eta polita da. Zaila den bezala gero Sakanan dagoen moduko aniztasuna kudeatzea.

7. 200 ordu egin behar zenituen...

Egi esan, harrapatu dut momentu batean ekintza pila bat, gauza pila bat egiten ari zirela. Justo sensibilizazio kanpaina erdian. Eta barruraino sartu nintzen. Esan nuen: hemen nagoenez, ni ere ari naiz proposamenak botatzen, ez dut hau maki utzi behar. Ekainera arte, esan nuen. Galdetu nion nire tutoreari, Bego Zestau Baraibarri, eta gero galdetu nion nire unibertsitateko tutoreari eta, arazorik gabe, esan zidan.

8. Noiz hasi zinen?

Otsailean hasi behar nuen, baina gestioak eta beste, martxoan hasi nintzen.

9. Zer egin duzu Anitzartean, kulturartekotasun zerbitzuan?

Sensibilizazio kanpainaren barruan, esloganarekin egin diren euritakoak eta 3 urteen ikaste-txeetan banatu. Egunen antolatketan, bigarren eskuko azoka Irurtzunen, munduko arrozak, kulturartekotasun astea sortu bitartean... Arte Ederrak ikasi ditudanez, bada, sormen horrek balio izan dit logoak, kartelak eta beste egiteko. Gauza asko ukitu ditut. Egia esan ez naiz aspertu ezta momentu batean ere.

10. Ikasi duzuna zuk praktikatu-koarekin lotura izan du?

Azkenean unibertsitateak marko teoriko bat ematen dizu, garai batean idatzi dena. Gero, ateratzen zarenean, nahiz eta zuk ikasteen badakizun errealitatea horrela ez dela... Hor ere egoten dira gero irakasleekin eta errietatxoak. Esaten diezu: baina hau gero errealitatean ez da horrela izan behar; esan egia. Azkenean, dena egokitu egin beharko da. Beste zenbait aspektu, emozionalagoak direnak, erlazioenak, pertsonekin zuzenean harremanena, landu. Ez gelditu hain teorikoan.

11. Zerbitzuan aritu zaren denboran zer ikasi duzu?

Gauza asko. Denetatik. Gehienbat, ni naizenarekin, nire nerbioak, oso azelerada naiz ni, pixka bat lasaiago egotea. Jende bati hitz egiteko orduan zenbait aspektu hobetzea. Ahozko komunikazioa ez dena. Ez nekizkien gauza batzuk ikasi ditut. Indar asko dago. Eta Anitzartean moduko zerbitzu txikitxo batek zenbat gauza kudeatzen dituen. Osorik: www.guaxe.eus

badatoz!

Behar dituzun euskarri guztiak!

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus